

ZERAIN



urtekaria

2008

Begiratu zientziari beste era batera

gizarte ekintza


hezkuntza



Kutxak, bere Gizarte-Ekintzaren bidez, zientzia jolasgarriago bihurtzeko formula zehatza aurkitu du,

Zientziaren kutxaGunea.

Ingurunean duguna hainbat sistema elkarreragileren bitartez uler dezagun asmatutako gune bat. Hemen ukitu, behatu, ulertu, gozatu egin baitezakezu. Zatoz eta begira egiozu munduari beste begirada batez.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**Zatoz Zientziaren
kutxaGunera**

- 170 esperimentu interaktibo.
- 10 erakusketa finko (gaikakoak).
- Planetarium digitala eta Planetarium Txikia (umeentzako).
- Elektrizitate-tailerra.
- Denboraldi baterako erakusketak.
- Ikastetxeetarako hezkuntza-programak eta material didaktikoa.
- Animazio-ekintzak eta adin guztietako jendearentzako zuzeneko ikuskizunak.
- Aparkalekua, dohainik. Erraz iristen da Museora.

Mikeletegi Pasealekua 45. DONOSTIA

Asteartetik ostiralera, 10:00etatik 19:00etara (udan, 20:00etara)

Larunbat, igande eta jaiegunetan, 11:00etatik 19:00etara (udan, 20:00etara)

Itxita egongo da astelehenetan (abuztuan izan ezik) eta egun hauetan: urtarilaren 1ean, urtarilaren 6an, urtarilaren 20an eta abenduaren 25ean.

Goizez bakarrik egongo da zabalik abenduaren 24an eta abenduaren 31n.

Kaixo irakurle!

Abuztuarekin batera Andramari eta San Roke jaiak heldu dira Zeraina, eta hauekin batera urtekariaren ale berria kaleratu dugu. Eta ia oharkabean, 21. alea egin dugula konturatu gara. 1988an hasitako bidean, zailtasunak zailtasun eta nekeak neke, urtero iritsi da festetarako garaiz urtekaria.

Ez da lan makala Zerain bezalako herri txiki batean, oso-osoki herritarrek egindako urtekaria kaleratzea. Baina horrela, historia, gure historia, ari gara idazten. Ea beste urte askoz horrelaxe jarraitzeko biderik izaten den, jende gehiagoren parte hartzearekin.

Beti bezala gure eskerrik beroenak urtekari hau egiteko beren lantxoa eta lan potoloagoa egin dutenei eta mila esker baita, diruz lagundu dutenei.

Ale hau ere zure gustukoa izango delakoan eskerrik asko zuri ere, irakurle, eta datorren urtera arte.



Artikulua**Orrialdea**

Sarrera.....	3
Erreportajea.....	6
Ekintzak.....	14
Berrikuntzak.....	20
Aipagarriak.....	21
Eskola Txikien Festa.....	24
Burdinaren mendia, lehena eta oraina.....	32
Baserri eta auzoetako seinaleak.....	37
Bertsoak.....	38
Gaztetako ibilerak III.....	39
Laborderen bilduma.....	41
Hasierako Sanroke afaria.....	42
Haurren txokoa.....	46

Egilea: Oa Kultur Elkarte

Azala: Joxemari Telleria

Diseinua eta maketazioa: Ion Muñoa

Argazkiak: Udaleko artxiboa, Herri-eskola, Otatza, Larraondo,
XaguArtea, Guraso elkarte, Benefiziaune, Aizperrota,
Urrutikoetxe, Imanol Lazkanoiturburu

Laguntzaileak: Aitziber Makazaga, Kontxi Errasti, Andoitz
Telleria, Mari Flor, Mariajexux eta Elena Mendizabal

Inprimategia: Antza Lasarte-Oria

Zerainen, 2008ko abuztuak 13

ZERAINGO HERRI ESKOLAK 25 URTE

Gogoaren, borondatearen eta militantziaren fruitua



25 urte beteko dira 2008ko irailean Zeraingo eskola sortu zela. 10 urtez itxirik egon ondoren, 80ko hamarraldi hasieran, eskola berriz sortzeko ideia sendotzen hasi zen Zerainen. 1983ko ekaineko plenoan onartu zuen Udalak eskola irekitzea eta urte hartako irailean eskola martxan zegoen.

8Okoko hamarraldia zen Zerainen. Trantsizio ondorena Euskal Herrian. Demokraziako lehen urteak mugimendu askokoak izan ziren. Baita Zerainen ere. Herria bizi berritzeko gogo, nahi, borondate edota militantziaren bueltan eskola sortu zen 1983ko irailean Zerainen.

1973. urtera arte Zerainen bazen eskola. Orduan ikasketak 14 urte arte egiten ziren eta amaitu egiten ziren. Ez zegoen modurik aurrera jarraitzeko. Zerainen ikasi eta ez zegoen unibertsitatera iristerik. Garai hartan ikasten jarraitzeko hiru modu zeuden: Legazpira joatea langileen autobusean, Beasaina La Sallera joatea eta kanpora seminariora joatea. Hori gizonezkoen kasuan eta emakumezkoenean hori ere ez. 1973an hezkuntzako erreforma gertatu zen: EGB, BUP eta COU ezarri ziren eta hark unibertsitatera iristea ahalbidetu zuen. Erreformaren ondorioz baina, Zeraingo eskola kendu egin zen eta Zeraingo ikasle guztiak Zegamara joan behar izan zuten, hasiera hartan.

Andoni Alustizak ondo gogoan du garai hura. Bera bederatzi urterekin Legazpira joan bazen ere, bere anai-arrebak 3-4 urterekin egun guztirako etxetik eta herritik kanpora joaten ezagutu zituen: "Uste dut etxean hori ikusteak markatu egin ninduela. Gogorra zen 3-4 urteko anaia eta arreba nahiko egoera prekarioetan egun guztirako etxetik eta herritik kanpo joan behar zutelako gustura ez ikustea".

Bestalde, ordea, 76an etxe berriak eraikita bazeuden familia berriak ere Zerainen. Bazegoen jende gazte multzo bat herrian geratu zena eta herrian bizi nahi zuena. Egoera



horretan 79an lehen legeintzaldia izan zenean, jada, herrian eskola berriz jartzearen ideia biraka zebilen herritar zenbaiten buruetan. Alustizaren hitzetan, "trantsizioa bukatu eta demokraziaren sorreran ia Zerainen eskolaren beharra ikusi zen

«Eskola irekitzea
ekain hasiera
inguruan erabaki
bazen, hurrengo
irailean eskola
martxan zegoen»

Antonio Gartzia

eta dena segituan jarri zen martxan". Izan ere, Alustiza Udaletxean zinegotzi zegoen eskola sortu zenean: "79ko hauteskundeetan aurretik soziedadean biltzen ginen eta han asko hitz egiten genuen herriaren etorkizunaz. Nik uste dut han dena nahasten genuela eta eskolaren ideia ere eztabaida haietan bazebilela".

Eskolaren beharra ikusten zen Zerainen. Alde batetik, zerbitzu on bat zelako herritarrentzat eta bestetik, belaunaldi berriak zeraindartzeko ezinbesteko erreminta zelako. Baina, nolabaiteko kontradikzioa ere bazegoen. Izan ere, ikasleak hasieran Zegaman eta gero Seguran kontzentratzea eta Zerainen eskola kentzea arrazoitutako neurria zela ikusten zuen zenbaitek, huraxe baitzen unibertsitateko ikasketak egin



**GURE ESKERRIK BEROENA
OA KULTUR ELKARTEAREN
IZENEAN *ZERAIN DEZAGUN*
FUNDAZIOARI**



1984ko Gabonak

ahal izatea ahalbidetu zuena. "Guk ikusten genuen Zerainen aurrez zegoen hezkuntzarekin ez zela ezer lortzen. Nire ustez umeak Zeraingo eskolara ekartzea erabaki zuten gurasoek meritu latza izan zuten". Beldur eta kezka batzuk ere baziren: "Herrian jarriko dugu eskola eta hala etxetik gertu izango dugu. Baina nolako kalitatea izango du? Umeek

zer lortuko dute? Noraino iritsiko dira?". Dena den, Zerain bizi mantentzeko eta gazteak zeraindartzeko borondatea zegoen herrian eta horrek gain hartu zien kezka guztiei.

Udalak hasiera hasieratik bere gain hartu zuen eskolaren gaia. 79ko legeintzaldian ez, baina hurrengoan, hots, 83koan, Udalean egin zen

bigarren plenoan onartu zen eskola sortzea. Antonio Gartzia zen alkate orduan: "Nik uste dut kontua aurreko legeintzalditik nahiko mamituta zegoela. Izan ere, konstituzioko plenoan ez hurrengoan, ia eskola irekitzea onartu zen".

Hasiera hartan Udalak nahiko kezka izan zituen nora jo ez zekiela eta. Dena den, Alustizak nahiz



**ANAIAK
GARAJEA**

MEKANIKA ETA IBILGAILU-KONPONKETA

Guardiko Industri-Poligonoa // Tfnoa.: 943 80 11 32 // IDIAZABAL

Gartziak gogoan dutenez, Eusko Jaurlaritzak ez zuen pega handirik jarri eskola irekitzeko. Bi baldintza jarri zituen: lokala Udalak jarri beharko zuen eta gurasoek borondatez eraman beharko zituzten ikasleak Zeraingo eskolara.

Aurreko eskolaren (gaur egungo albergearen) desafekzioa lortu gabe zeukan artean Udalak. Baina eliz-atarian bazen lokal bat hutsik. Halaxe, plenoan eskola irekitzea erabaki eta berehala aurrekontua eskatu zuen Udalak eliz-atariko lokala egokitzeko. Iñaki Ondarra arkitektoak egin zituen lanak: bi leiho egin, ate berria jarri, komuna egin... Milioi bat pezeta inguru kosta ziren lanak eta hori Udalak ordaindu zuen.

Gartziaren esanetan, bi aldiz pentsatu gabe jarri zen Zerainen eskola martxan: "Eskola irekitzea ekain hasiera inguruan erabaki bazen, hurrengo irailean eskola martxan zegoen".

Eskola jarri arren, umeak behar ziren. Bi ikasle zeuden 83ko ikasturtean eskola hasteko. Baina haiekin ez zen nahikoa. Seguran urte batzuk eginak zituztenak ere ekarri

«Eskola sortu, sortuko dugu; baina zer jarrera izango ote dute Segurako eskolatik umeak ateratzeko eskatzen diegun gurasoek?»

«Guraso haiek izugarrizko meritua daukate. Ez dakit gaur gurasooi hori eskatuko balitzaigu zer gertatuko litzatekeen»

Andoni Alustiza



1989/90 ikasturtea



1999/2000 ikasturtea

beharra zegoen eskola martxan jarriko bazen. Alustizak gogoan duenez, huraxe izan zen beldurrik handienetakoa: "Eskola sortu, sortuko dugu, baina zer jarrera izango ote dute Segurako eskolatik umeak ateratzeko eskatzen diegun gurasoek? Guk bagenekien gurasoekin bildu eta hitz egin behar genuela, baina haien erreakzioaren beldur ginen".

Alustizaren esanetan gurasoek oso jarrera ona izan zuten: "Guraso horiek izugarrizko meritua daukate. Nik ez dakit gaur egun gurasooi hori eskatuko balitzaigu zer gertatuko litzatekeen". Zalantza batzuk gora-behera lau gurasok Segurako eskolatik umeak atera eta Zeraina

ekarri zituzten; batzuek gainera, urte bat edo birako bakarrik.

Eliz-atariko lokala gainera, ez zen proposena eskola jartzeko. Baina bi urteren ondoren, gaur egun eskola dagoen tokira pasa zen. Herritarrek oso garbi zeukaten eskolari eman behar zitzaiola apaiz-etxeko lekuri onena eta halaxe egin zen: "Pentsa nolako garrantzia ematen genion eskolari. Inork ez zuen zalantza egin apaiz-etxeko lekuri onena emango zitzaiola".

1983ko irailean martxan jarri eta 25 urteko ibilbidea egin du jada Zeraingo eskola txikiak. Ea, bada, beste 25 urteko ibilbidea hasten duen orain.

Hasierako gurasoen balentria

1983ko irailean Zerainen eskola martxan jartzeko bi ikasle zeuden ikasturte hartan eskola hasteko: Iban Gartzia eta Arkaitz Aizpeolea. Baina haiekin ez zen nahikoa. Seguran urte batzuk eginak zituztenak ere ekarri beharra zegoen eskola martxan jarriko bazen. Hala, lau gurasok Segurako ikastolatik umeak atera eta Zeraina ekarri zituzten. Aitziber eta Miren Makatzaga, Aloña Salsamendi, Iker eta Koldo Aizpeolea, eta Iñaki Zabalo dira Segurako ikastolatik Zeraina etorri ziren ikasle haiek. Horien gurasoekin hitz egin dugu.

KORO ALUSTIZA

«Umeek beren lagunartea Zerainen egiteko ere mesedea egin du eskolak»

Koro Alustizaren eta Antonio Makazagaren bi alaba zebiltzan Seguran: Aitziber eta Miren. Segurako ikastolatik atera eta Zeraina ekarri zituzten: bi urteko Miren eta urtebeteko Aitziber, nahiz eta hau ere gero urtebete gehiago egon Zerainen.

25 urte beteko dira irailean Zeraingo eskola txikia sortu zela. Garai haiek nola gogoratzen dituzu?

Oraingoak baino zailagoak ziren garai haiek.

Zergatik diozu hori?

Segurara umeak eramateko ez zegoen oraingo erosotasunik. Autobusa egonda ere, irakasleei galdetu genien autobusetik eskolara lagunduko ote zieten umeei eta ezezko erantzuna jaso genuen. Gu ez ginen atrebitzen umeak bakarrik uzten eta haiei laguntzera joan behar izaten ginen egunero.

Herrian zer giro zegoen garai hartan? Eskola beharrik ikusten zen?

Bai. Herrian komentatzen zen hau hilda bezala geratzen zela. Ume denak kanpora joan eskolara eta herria bizitza gabe geratzen zen.

Zuen bi ume Segurako ikastolan zebiltzan, urte



batzuk han eginak zituzten gainera, zuek Segurako ikastolatik atera eta Zeraina ekarri zenituzten. Nola hartu zenuten erabakia?

Eskola jarri nahi zen Zerainen eta umeak behar ziren horretarako. Guri eskean etorri zitzaizkigun ekarriko ote genituen edo galdezka, gainontzean eskola sortzeko nahiko ume kopururik izango ez zela eta. Baina guretzat ere bentaja handia zen herrian eskola jartzea eta baiezkoa eman genuen.

Zein izan zen orduan umeak hona ekartzearen helburua?

Herriari bizia ematea eta komodidadea, biak.

Zalantzarik izan zenuten Zeraina umeak ekartzea erabakitzeko?

Nik ez. Nik ez dut sekula zalantzarik izan horrekin. Han geratu izan balira ere ez zuten gehiago ikasiko.

Hasiera hura Zerainen nola gogoratzen duzu?

Aldaketarik ekarri zuen eskolak?

Bai. Eskola umeek beti hotsa edo zarata ekartzen dute eta hori hemen plaza gertuan bizi garenok nabaritu egiten dugu. Horrek gero lagunartea Zerainen egiteko ere diferentzia ekarri zuen.

Hasieran espero zen hura eman zuen eskolak?

Normal joan zen dena. Ez dut uste ezeren faltarik izan genuenik. Berriz Segura joateko garaia laster iritsi zela.

MARI SOL TELLERIA

«Herriko umeak bertarako izatea nahi genuelako ekarri genuen alaba Zearaina»

Mari Sol Telleriak eta Joxe Salsamendik bost urteko alaba atera zuten Segurako ikastolatik eta Zeraina ekarri zuten bi urte egitera.

25 urte dira Zerainen eskola ireki zela. Garai hura nola gogoratzen duzu?

Guretzako izugarri pozgarria izan zen. Gure umeak Seguran zebiltzan eta Seguran hain txikitan ez ziren oso ongi moldatzen beste umeekin. Aloña artean 3 urte bete gabe zituela joan zen Segurara. Haiek jada euren koadrila bazuten eta hauek erbestekoak ziren. Beraz, Seguran gustura behintzat ez zebiltzan.

Herrian zer giro zegoen? Eskola beharrik ikusten zen?

Eskola beharra, bai horixe, handia, gainera. Guk beti geuretzako eskola izan genuen Zerainen, eta gure umeen garaian jada ez zegoen. Gu lanean genbiltzala gainera, erosoagoa zen Zerainen eskola izatea.

Zuen kasuan, gainera, alaba Segurako ikastolan



zebilen. Handik atera eta Zeraina ekarri zenuten. Nola hartu zenuten erabaki hori?

Erabakia gustura hartu genuen guk. Positibo pentsatuta. Ez zitzaigun iruditzen Zeraina ekarrita gaizkiago joan behar zuenik. Guk pentsatu genuen



TELLERINE BASERRIA

NEKAZALTURISMOA

Jose Migel Arrondo Irastorza

Aizpea Auzoa
Tel. 943 58 20 31
20214 ZERAIN

zergatik ez zuten, bada, ondo ibili behar.

Zeraina umeak ekartzeko arrazoi nagusia zein izan zen?

Nahi genuen umeak herrian edukitzea eta herriko umeak bertarako izatea, eta aurrera ere eskola herrian bertan izatea. Eta nola edo hala hasi beharra zegoen eta guk orduan ahalegina horretan egin genuen.

Dударik edo izan zenuten umeak Zeraina ekartzeko?

Nik neuk batere dudarik ez nuen egin. Nik pentsatzen nuen beste umeren bat ekartzea ere eta nik ideia banuen denentzat eskola Zerainen izatea

positiboa zela.

Zein diferentzia ikusten zenituzten Segurako eskolaren eta Zeraingoaren artean?

Estudioen aldetik diferentziarik ez. Kasik Zeraingoa hobea bezala zela. Ikasle gutxiago zeuden gelan eta lasaiago zebiltzan. Umeak askoz ere gusturago zebiltzan.

Zeraina umeak ekarri zenituztenean Zeraingo eskolatik espero zenutena jaso zenuten bueltan?

Guk pena handia izan genuen gero, hemendik atzera joan zirenean. Baina joan beharra zegoen eta halaxe eraman genituen, baina pena izugarriarekin.

ANTTONI ZALDUA

«Erosotasuna behintzat, izugarria ekarri zuen eskolak herritarrentzat»

Anttoni Zalduak eta Luis Aizpeoleak bi seme zeuzkaten Segurako ikastolan: Iker eta Koldo. Batak bi urte eginak zituen han; besteak bakarra. Handik atera eta Zeraingo eskolara ekarri zituzten.

Aurten 25 urte dira Zerainen eskola ireki zutela. Garai hura nola gogoratzen duzu?

Eskolaren aldetik begiratuta, egunero Segurara umeak eramatea ez zen eroso.

Zer giro zegoen herrian? Eskolaren beharrik ikusten zen?

Bai, zeren bestela, ni esate baterako, autobusean joaten nintzen mutikoekin Segurara haiei laguntzeko eta gero oinez etortzen nintzen, nik kotxerik ez baineukan eta gizonak lana egiten zuen.

Eta autobusean nolatan joaten zinen umeekin?

Bakarrik ez uzteagatik joaten nintzen. Artean txikiak ziren eta autobusean sartzen eta jaisten eta handik eskolara joaten laguntzeko joaten nintzen.

Hasieran, beraz, zaintzailerik ez zegoen.

Nik gogoratzen dudanez, umeak Zeraina ekarri eta atzera Segurara joatea tokatu zitzaizenean jarri zuten zaintzailea. Nik hori dut gogoan.

Herrian eskolaren beharrik ikusten zen? Edo zuek behar hori sumatzen zenuten?

Beharra bai, sumatzen zen. Baina hara hasi zirenez horretara jarri ginen. Gero esan zigutenean hemen eskola egin behar zela, bada, guk gustura hartu



genuen erabaki hori.

Zure kasua izan zen, beste batzuen bezala, Segurako ikastolan umeak ibiltzea eta handik aterata Zeraina ekartzea.

Guri komentatu ziguten herrian eskola jarri behar zutela eta komeni zela umeak herrira ekartzea. Niri ongi iruditu zitzaidan. Niri ongi etorri zitzaidan gainera, lehen esan bezala kotxerik ere ez nuelako eta beraz, herrian eskola izatea erosoagoa zelako. Gainera, urte hartan eskola hasteko bi ume zeuden herrian eta haiengatik bakarrik ez zuten eskola irekiko eta beraz Seguratik ekarri beharra zegoen umeak.

Umeak hona ekartzeko arrazoi nagusia, beraz zein izan zen? Erosotasuna?

Erosotasuna behintzat bai, niretzat. Erosotasuna izugarria. Gero herrian eskola bat edukitzeak herria bizitzen du. Pentsa 25 urte iraun du eta espero dut gehiago irautea.

Garai hartan dudarik edo izan zenuten umeak Seguratik Zeraina ekartzeko?

Ez. Ez naiz asko gogoratzen, baina ez dut uste.

Gainera, denak ezagunak zirenez, bada, are gutxiago.

Ikusten zenuten diferentziarik Segurako eskolaren eta Zeraingoaren artean?

Ez dakit eurak zerbait nabaritu zuten, baina nik ez dut uste. Gero berriz hara joan zirenean lagunak egin zituzten eta dena ongi joan zen.

HILARI LAPITZONDO

«Umeak pixka bat koxkortu artean behintzat, herrian behar da eskola»

Hilari Lapitzondo eta Inazio Zabalok bi urte Segurako ikastolan egin ondoren lñaki semea handik atera eta Zeraina ekarri zuten eskolara.

Orain beteko dira 25 urte Zeraingo eskola txikia sortu zela. Baina zuk nola gogoratzen duzu garai hura? Zer oroitzapen daukazu?

Niri gauza asko ahaztu egiten zaizkit. Segurara autobusean joaten ziren. Gurea eguerdian han geratzen zen bazkaltzen. Baina artean oso umea zen, 3 urte bete gabe zeuzkan.

Eta herrian zer giro zegoen? Eskolaren beharrik ikusten zen?

Bai, bai. Nik beti esan izan dut hori. Herrian behar dela eskola. Umeak pixka bat koxkortu artean behintzat bai. 8-9 urte arte, orain dagoen bezala behintzat bai.

Zuen semerik zaharrena Seguran zebilen ikastolan eta handik atera eta Zeraina ekartzeko erabakia hartu zenuten. Nola hartu zenuten erabaki hori?

Guk bagenekien hurrengo urtean hemen zabaldu behar zutela eskola. Beno, ezer segururik ere ez genekien, baina zarata bazegoen, asmoa bazen. Baina urtea alferrik ezin galdu eta Segurara bidali genuen.

Seguratik atera eta Zeraina ekartzeko arrazoi nagusia zein izan zen?

Beste munduko arrazoirik ez genuen izan. Bertan eskola ireki zutela eta kito. Ezeren pegarik ez zen egon eta gu gustura.



Inolako zalantzarik beraz ez zenuten izan.

Ez, ez. Ez sartzeko eta ez ateratzeko.

Eskolaren hasiera hura nola gogoratzen duzu?

Orduan umea gutxi zen. Eskola ez zen ume askorekin hasi. Hasieran elizatariko eskola zaharrean zen. Baina gero segituan jarri zuten orain dagoen lekuan.

Berehala umeak Segurara eramateko garaia iritsiko zen. Baina zuek Zeraingo eskolatik jaso al zenuten hasieran espero zenutena?

Bai, bai. Dena ondo joan zen.

ANDRAMARI JAIK

Urtero bezala Andramari jaiak giro ederrean ospatu genituen.

Bezperan haurrak, jolasean ibili ziren puzgarrietan salto eta salto. Eta mozorrotzeko aukera ere izan zuten; baita ederki mozorrotu ere! Etxafuero eta kanpai bueltakoekin hasiera eman ondoren txekorra janez eta sagardoa dastatzuz jende ugari bildu zen goizalderarte.

Andramari egunez urteroko ekintzez gain, goizean, herriko gazteek pilotari dohainak erakutsi zituzten pilotalekuan, nahiz eta emaitzak ez guztiz aldeko izan. 45 urtetik gorakoen hirugarren dantza txapelketa jokatu zen arratsaldean. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, baina gogoia eta sasoia izanez gero, nahikoa dela agerian geratu zen. Iluntzean, gazteak herrian ibili ziren



Herriko gaztetxoenen mozorroek nahiko barre eragin zuten.



Herriko pilotari gazteek ezin izan zuten herrian profeta izan.



Euria eginagatik, gogoz egin zuten dantza beteranoek.

triki-poteoan. Ondoren, denak Oihartera joan ziren afaltzera. Eta gauean, ez zen asto karrerarik falta izan.

San Roke eguna urteroko ekintzez bete zen, baina eguerdian herri-kirol saio ederra egin zuten herriko gazteek errebokak. Gauean, herri afaria umore ederrean eta giro onarekin egin zen plaza aldean, beti bezala gora begira beldurtuta egon ondoren. Hiru eguneko jaien ondoren, atsedena hartzeko egunak iritsi ziren herria txukundu ostean. Betiko moduan izan zen anekdota eta bilobei kontatzeko moduko istoriorik, baina oro har, festak umore ederrean joan ziren.



San Roke egunean gazteak nekatuta egon arren, herri kirol saio polita egin zuten.

KULTUR ASTEA

Irailaren 8tik 16ra egin zen kultur-astea. Larunbatean Aizpe aldea bisitatzeko ibilaldia eta hamaiketakoa izan ziren. Gauean herriko plazan afaria egin zen bertsolari eta trikitilariekin, umore ederrean. Igandean hirugarren adinekoen txanda izan zen, eguerdian Meza Nagusia eta ondoren bazkaria bertsolari eta guzti.

Asteazkenean zehar hainbat gai jorratuz hitzaldiak izan ziren. Abiadura Handiko trenaren Zeraingo artzainak eta Segurako buruargi bati buruz izan ziren hitzaldiak, besteak beste.

XIII. AZOKA EKOLOGIKOA

Jende ugari bildu zen urte bat gehiagoz ere XIII. azoka ekologikora. Salmenta postuak produktuz beteta egon ziren eta tailerrek jendea gozarazi zuten; batik bat gaztentxoak. Urteroko moduan sagar muztioak jendearen ahoa goxatu zuen. Horrez gain, nobedade nagusia, zuatza izan zen. Idi pareak tiratako gurdian belarra karreatu ondoren, frontoi ondoan egin zuten zuatza lehengo erara. Argazki ederrak ateratzeko aukera izan zen.

Arratsaldean ez zen azoka-posturik egon, baina herri kirol saio bikaina izan zen. Punta-puntako aizkolariek jarri zioten amaiera egun eder, bezain jendetsu bati: XIII. Azoka ekologikoari.



Zuatza egiten ahaztu gabe daudela agerian utzi zuten alkateek.



Azokan uztarria nola egiten den ikusteko aukera egon zen.



Azoka egunean, idi pareak ikuskizun bat gehiago izan zen.



Gurdia ondo kargatzeak badu bere lana.



Plazan hasi zen Ahaldun Nagusiaren bisita.

AHALDUN NAGUSIA BISITAN

Urriaren 9an, Markel Olano, Gipuzkoako Ahaldun Nagusia, Zerain bisitatzen izan zen. Berekin batera etorri ziren Karlos Ormazabal, garapen iraunkorreko foru diputatua eta Rafael Uribarren nekazaritzako foru diputatua.

Eguerdia aldera iritsi ziren herriko plazara eta udal-taldeak ongietorria egin ondoren herriko museoa eta diaporama ikusi zituzten, ondoren Aizpeako meategira egin zuten bisita. Labeak eta ingurua ikusi ondoren Aizpittako interpretazio zentroaren proiektuaren xehetasunak azaldu zizkieten udalekoek.

Udalak herrian dauden premia nagusiei eta egiteko beharrezkoak diren proiektuei buruz hitz egin zion Aldun Nagusiari eta idatziz eman behar horien berri, eta Aldundiaren laguntza edukitzea espero zuela adierazi zion.

TALO ETA GAZTAINA JANA

Udazkenak, berekin batera urteroko ohitura edo usadioak ekarri ohi ditu, hauetako bat, garaiko diren talo eta gatzaina jana da. Basarte guraso elkarteak antolatuta, azaroaren 10ean egin zen herriko plazan, zeraindar guztientzat.

Batzuek gatzainak erretzen zituzten bitartean, besteek taloei forma ematen zieten. Bakoitzak bere taloa egin eta jan zuen. Gero danbolinean erretako gatzainak jan



Urteroko ohitura bihurtu da Guraso elkarteak antolatzen duen gatzaina eta talo jana.



Herriarren aurrean kontzertu ederra eman zuen Uharka abesbatzak.



Urduritasunez, baina pozik abestu zioten haurrek Olentzerori.

eta iluntzeari amaiera ona emateko, soinu-joleek dantzarako aitzakia jarri zuten.

KORUEN KONTZERTUA

Abenduaren 16an, Zeraingo Uharka eta Lazkaoko Kantaka abesbatzek, kontzertua eman zuten Zeraingo elizan. Eguberri atarian izanik gabon kantak entzuteko aukera izan zen, beste abesti batzuen tartean. Kantaldi polita izan zen. Bi abesbatzen lankidetzak aurrera eramanez apirilaren 25ean Lazkaoko elizan ere, elkarrekin abestu zuten.

GABONAK

Gabon egunean zehar herrian gabon kantak abestuz herritar talde bat ibili zen egun osoz herriko etxe guztiak pasatuz. Eskolako haurrak beren irakasle eta gurasoekin goizez ibili ziren herri inguruko etxeetan. Iluntzean, haurren gozamenerako, Olentzero etorri zen menditik behera, gurdian haurrentzat opariak eta denentzat gaztaina erreka ekarri.

SANTA AGEDA BEZPERA

Santa honen izenean... aurten ere herritar talde bat bazkalondorenen Aizpe auzotik hasita etxez-etxe ibili zen tartean lehengo koplak zaharrak kantatuz, entzuleen gozamenerako,



Inauteriak eta Santa Ageda bezpera ospatu zituzten eskolako haurrek.

eta hauek baita eskuzabaltasunez erantzun ere, batzuetan kafea eta pattarra, beste batzutan mokadutxoak, eta denetan dirua. Oraingoan bildutakoa Zegamako Harkaitz Ariznabarretari laguntzeko izan da.

ESKOLAKO HAURREN INAUTERI JAIA

Inauteriak oso goiz iritsi ziren, hala ere eskolako haurrek ezin hobeto ospatu zituzten, otsailaren 4an. Baina inauteri astelehena eta Santa Ageda bezpera egun berean zirenez, urteroko antzerkiaren orde, koplak eta abestiak eskaini zizkieten

gerturatu ziren guraso eta herritarrei. Ondoren guraso elkarteak merienda prestatu zuen guztientzat.


TUTE ETA MUS TXAPELKETAK

Otsailaren 16an Liztormendi elkarteak jokatu zen Tute txapelketan 18 bikotek parte hartu zuten, eta hauetan onenak Iban eta Koldo Aizpeolea lehengusuak izan ziren, ordu askotako entrenamendua nabari gelditu zen. Mus txapelketa martxoaren 1ean jokatu zen eta Zegamako Jon Arakama eta Jon Azurmendik irabazi zuten, 24 bikoteren arteko lehian.

ITURRIOZ S.A.

Erainkuntza eta eskabazio lanak

Eziolatza poligonoa, 24 B
20213 IDIAZABAL (Gipuzkoa)



Telefonoa: 943 187 556 - Fax: 943 187 356



Tutean Aizpeolea lehengusuak izan ziren nagusi.



Musean, Zegama aldera eraman zituzten txapelak.

SAN JOAN BEZPERA

San Joan bezperako suaren inguruko festa, istorio, tradizio eta erritualek bizirik diraute oraindik ere Zerainen. Horregatik aurtan ere, ekainaren 23an astelehena, arratsaldean San Joan arbola, bere ikurrina eta lore sortarekin zutitu zuten plazan. Iluntzeko 8etan hurrek dantzatu, eta Uharkakoez *San Joan* kantatu ondoren, kanpai bueltakoen soinuarekin batera San Joan sua piztu zen. Suaren inguruan dantzatu eta ausarten batzuk salto bat edo beste egin zuten. Tximista eta trumoi hotsen artean eliz atarian jan-edanean bukatu zen festa.

NEKAZAL MAKINARI ERAKUSKETA

Maiatzaren 16an eta 18an, nekazaritza munduari lotutako makinari erakusketa eta sega apustuak izan ziren protagonista Zerain aldean.

Maiatzaren 16an, Euskadiko Abere-ustialekuen VIII. Txapelketa jokatu zen Zerainen. Goizean makinari eta baserriko lanerako produktuen erakusketa egon zen, eta aurreikusita bazegoen ere, eguraldi txarragatik, ezin izan zen Oiharteko soroan lurra prestatu eta artoa ereiten duen makina modernoa lanean ikusi. Hala ere, sega eta aizkora saioak izan ziren, elkartu ziren baserriarren gozamenerako.

Ondoren, sari banaketa eta bazkaria Lierniko Mujika jatetxean egin zituzten. Guztira 12 sari banatu zituzten. Sari horietako bat, Gipuzkoako ardi-ustialeku onenaren saria Basazabalgo Jabier Muñoiari eman zioten. Garaikurraz gain, diru-saria ere eman zioten, Basazabalgo artzain gazteari.



Urteko surik magikoena ozta-ozta libratu zen trumoi zaparradatik.

SEGA TXAPELKETA

Maiatzaren 18an, Almitza sega elkarteak, aurtan lehenengo aldiz, antolatu duen Euskal Herriko sega ligako lehen jardunaldia jokatu zen Irukateko zelaian. Nazioarteko eran lehiatu ziren segalariak. Emakumeek 50 metro karratu eta gizonezkoek 100 metro karratu moztu zituzten. Ligako sei jardunaldiak jokatu ondoren, aurrena geratzen diren segalariak izango dira Euskal Herriko ordezkariak Europako sega



Jabier ardiak jeitzen.

txapelketan. Zeraingo saioan Gabilondo anai-arrebak izan ziren garaileak.

Jende ugari bildu zen Irukateko zelaia inguruan, igande arratsaldean, nahiz eta eguraldiak ez zuen asko lagundu.

HERRI BILERAK

Abenduaren 1en eta maiatzaren 31n, herri bilerak egin ziren udaletxeko ganbaran, herriko kontuez hitz egiteko. Bi bilera horietan, Udalak eskuartean dituen proiektu eta asmoen berri eman zien herritarrei, eta era berean, herritarren iritziak jaso ere egin zituen. Bestetik, herri-bilera beretan, guraso elkartekoek Eskola Txikien Festaren gaineko informazioa ere eman zieten zeraindarrei.

MUTILOARA V. JAITSIERA

Ekainaren 27an, urtero bezala zeraindar piloa elkarrekin jaitsi zen festa giroan Mutiloko sagardo dastaketara. Betiko moduan, errazagoa izan zen goitik behera jaistea bueltan igotzea baino.

BAITA ERE

Ekintza hauez guztiez gain, orain arte bezala, joan den urte honetan ere beste hainbat ekintza egin dira:

* Ingelesko kurtsoak

*Aste Santuan eta udako oporraldietan haurrentzat aisialdirako jolasak eta tailerrak egin dira.

*Irailaren 1en eta 2an Arantzazuko erromesaldia egin zen eguraldi ederrarekin.

*Adinduen urteroko eskurtsioa Oiartzungo Arditurriko meatzeak



Euskal Herriko I. sega ligako lehen jardunaldia ikuskizun polita izan zen.



Herri bilerarik eta bestelako bilerarik ez da falta izan aurtan.

ikustera egin zen.

*Irailaren 22an eskurtsioa egin zen Kultur Elkarte eta katekesitik.

*Azaroan ardi afaria egin zen Ostaturk

antolatuta.

*Xabierren Dorronsoro aguazilak otsailaren 2an aizkora apustua irabazi zien bi lagunei 10 kanaerdikora.



70 herritar baino gehiago jaitsi ziren Mutiloara.



Arantzazuko peregrinazioa giro ederrean ospatu zuten.

Plazatik Antxaputxura bide berria egin da

Plazatik Antxaputxura bide berria egin da, inguru hartako etxe berrien urbanizazio planaren barruan. Antxaputxuko eraztunetik gorantz abiatu eta berehala eskuinera hartuta, Ganbaratxo eta Serorategi artera irtetzen da bide berri hori.

Guztira ehun metro inguru ditu eta etorkizunean inguru horretan egingo diren etxeen sarrera izango da. Momentuz, bi etxeri emango die bidea, baina gerora egiten direnei emateko ere pentsatuta dago.

Bide berria egiteko, lehendik zegoen estrada zaharra aprobetxatu da, baina zabaldu beharrak hainbat zailtasun ekarri ditu. Alde batetik, eliz atzeko pareta indartu behar izan da puntu batzuetan; eta bestetik, Serorategiko labea ez ukitzeko ere, moldaketa lanak egin behar izan dira. Bestalde, bide berria egiteko lanak aprobetxatu dira, sartu beharreko hodi guztiak sartzeko ere.



Momentuz, ez da irekita egongo autoentzat plazara arte, baina

etorkizunen ikusi egin beharko da zein funtzio beteko duen.



JAIOZAK



Laia Apaolaza Hernandez 2007-03-08



Itxaso Lazkanoiturburu Alustiza 2007-05-06

HERIOTZAK

Anakleta Berasategi Aierbe	2007-02-19
Joxe Mari Intxausti Arrondo	2007-04-01
Juan Alustiza Arrondo	2007-06-26
Izaskun Etxaluze Zubeldia	2007-08-22

BIZTANLEAK

Udal eroldaren arabera 2007ko urte hasieran 250 biztanle ziren Zerainen eta urte bukaeran 244. Urtean zehar 6 alta izan ziren, hauetatik 2 jaioz, eta bajak 12, hauetatik 4 heriotzak.

EZKONTZAK

Iñaki Erroke Alustiza Etxaluze eta Miren Arantzazu Aranburu Zinkunegi. 2007-05-26

2007-2008 IKASTURTEKO HERRI-ESKOLAKO HAURRAK

Maialen Alustiza Aseginolaza
Iosu Lazkanoiturburu Alustiza
Aroa Saez de Egilaz Junkera
Irenia Apaolaza Kintela
Haizea Foroni Ruiz de Larrinaga
Adur Balerdi Aierbe
Haiz Iturrioz Sodupe
Aizpea Elortza Elorza
Eki Iturrioz Sodupe



2007-2008 IKASTURTEKO HAURRESKOLAKO HAURRAK

Ortzi Harreguy Urbiztondo
Unai Eguren Retolaza
Eneritz Iztueta Etxeberria
Itxaso Lazkanoiturburu Alustiza
Manex Rivela Tapia (Segura)
June Zeberio Quiros (Idiazabal)
Maddi Oyarbide Galarraga (Idiazabal)
Enez Iturbe Egimendia (Zegama)

HAUTESKUNDEAK

2007ko martxoaren 9an egin ziren Espainiako Kongresurako hauteskundeetan honako emaitzak izan ziren Zerainen.

Zentsatutako hautesleak	208
Boto emaileak	89
Boto zuriak	5
EAJ/PNV	59
ARALAR	11
EA	7
PSE	3
AMD	1

Q ZIURTAGIRIA

2007an Zeraingo Turismo Bulegoak turismoaren kalitateko Q kalitateko ziurtagiria lortu zuen. Abenduaren 13an Bilbon egin zen turismoko galan, Joxe Manuel Oriak, Zeraingo alkateak, Ibarretxe Lehendakariaren eskutik jaso zuen ziurtagiria.



AIZKOLARIEI OMENALDIA OTATZA SAGARDOTEGIAN

Aizkorpe bailarako 67 urtez gorako aizkolari beteranoei omenaldia egin zitzaien Zeraingo Otatza sagardotegian, Zegamako Joanito Apaolaza (Goyena) Gabriel Apaolaza (Goyena) eta Joxe Larrea (Apaztei) Segurako Bonifazio Lardizabal (Arrabiola) eta Idiazabalgo Antonio (Otazabal) izan ziren omenduak. Urtarrilaren 27an, igande goizean, Goiburu eta Zubeldia bertsolari zirela eta trikitixen doinuaz alaituta zortzi aizkolarik saio bikaina egin zuten, ondoren zazpi omenduei oparia eta txapelak banatu zitzaientzen, eguraldi bikainarekin, giro ederrean joan zen jaialdia, baita ondorengo bazkaria ere.



OTATZA SAGARDOTEGIA
ZERAIN GIPUZKOA
TEL. 943 80 17 57

KALITATE ZIURTAGIRIA

Eusko Jaurlaritzak, Euskaliten bidez ematen dituen "Erabilpen egokiko manualen" kalitate konpromisoari dagokion ziurtagiria jaso du Mandioa tabernak

PILOTARIAK BISITAN

Azaroaren 22an, Juantxo Koka, Oier Mendizabal eta Mikel Unanue pilotariak, Zerainen izan ziren. Arratsaldean, herriko frontoian, hurrekin pilotan jolasean ibili ziren, autografoak sinatu eta beraien argazkiak banatu ondoren, Liztormendi elkartearen afaldu zuten. Herriko haurrek oso gustora ibili ziren.



EUSKAL HERRIKO ITZULIA ZERAINEN

Apirilaren 9an astelehen arratsaldean, Euskadiko Itzuliaren lehen etapa Legazpi-Legazpi izan zen, Zeraindik bi aldiz pasa zen lehenengoa Seguratik Legazpi aldera, eta bigarren bueltan Legazpitik Mutiolara, eguraldi kaxkarra izan bazen ere, jende



ugari inguratu zen euripean txirrindulariak animatzea.
GIPUZKOAKO BOLA TXAPELKETA

Ekainaren 8an egun osoan zehar Liztormendi bolatokian Gipuzkoako Bola txapelketa jokatu zen, maila desberdinetan. Beteranoetan Jose Antonio Ugarteburu izan zen irabazlea, emakumeetan Aitziber Makazaga herritarra, gazteetan Itoitz Alustiza eta haurretan Jon Aranburu. Egun horretako bola lehiaketan Antonio Alustiza zeraindarra nagusitu zen.



N-I SEINALIZAZIOA

2007ko udazkenean N-I errepidean Zerain ere azaltzen zen panel berriak jarri zituen Foru Aldundiak. Eskiera ugariren ondorena izan da hau.



Zeraingo Udala

**GURE ESKERRIK BEROENA
 OA KULTUR ELKARTEAREN
 IZENEAN
 ZERAINGO UDALARI**

Zerain etorkizuna

Beste askotan bezalaxe, Bekainaren 8an zeraindarrok baietz esan genion etorkizunari. Etorkizuna era askotara jorratzen da, bai gauza txikiak egiten ditugunean, maitasun-keinu bat plazan dagoen haurrari, mesede bat auzokoari... eta baita gauza handiagoak egiten ditugunean ere: Aizpitta martxan jarri edo aurten antolatzea egokitu zaigun Gipuzkoako Eskola Txikien XXI. Festa antolatzerakoan.

Festa antolatzea sekulako erronka izan da guztiontzat, eta bereziki Guraso Elkarteko kideontzat.

Duela urtebete Zubietan lekukoa jaso genuenean, esan genuen festa prestatzeko ardura ilusioz hartu genuela, eta, gainera, Gipuzkoako eskolarik txikiena izanda, guraso-elkartea ere hala modukoa zela, txikia, 16 gurasoz osatutakoa, hain zuzen ere.

Baina bagenekien lan horretan ez ginela bakarrik arituko eta zeraindar guztien laguntza izango genuela, Zeraingo eskola zeraindar guztiona delako. Eta espero bezala, halaxe



izan da.

Festa arrakastatsua izan da, gustura gaude. Asko izan dira gauza batengatik edo beste batengatik zoriondu gaituztenak: ongi-etorri ekitaldia hunkigarria izan zelako, festa ondo antolatua zegoelako, festa goxoa izan zelako, bazkaria ederra izan zelako...

Zorionak!

Zorionak!

Zorionak!

Herri txikietako gipuzkoarrek ondo pasa dute, eta ondo pasa dugu guk ere.

Horretarako aritu gara 50 pertsona inguru 7 batzordetan lanean urtean zehar; makina bat koordinazio-bilera



ETXAIDE
ERAIKUNTZAK, S.A.

Araba Etorbidea, 5.blokea
Tel: 943 65 31 86

TOLOSA



egin dugu eta bi herri-bilera.

Horretarako aritu gara 150 pertsona inguru lanean egunean bertan: trafikoan, sukaldean, barran, helatuak saltzen, argazkiak ateratzen, jokoetan begirale, tiro-latan, astobusak gidatzen, animaliak zaintzen, kazetaritza-tailerrean, erakusketan, eskola erakusten, trikitixa eta txalaparta jotzen, gure ondarea erakusten, kamisetak saltzen, gonbidatuekin hitz egiten, komunikabideei erantzuten...

Eta festa amaitu eta gero, hurrengo egunean, dena jasotzen,

txukuntzen, desmontatzen, garbitzen, gordetzen...

Guztiak merezi izan du.

Zerainek beste behin erakutsi du etorkizuna lantzeko grina, gogoia eta abilezia.


Guztion artean egin dugu, etorkizuna guztiona delako: haur nahiz helduena, emakume nahiz gizonena, gazte nahiz zaharrena.

ESKERRIK ASKO!

Arantxa R. de Larrinaga

Eskerrik asko aita
mila esker ama
Zerainen elkartzea
ederra plana
txiki nahiz handientzat
egon da programa
Pirritx eta Porrotxi
muxu haundi bana
A zer auzolana
gaurkoak daukana
Jan eta edana
Ze goxoa dana
Espero dugu ondo
pasa izana.

Eskola Txikietan
txikietan txiki
lekukoa indartsu
dugu atxiki
hogeita bost urtean
poliki-poliki
herria oinarritik
behar da eraiki
lan egin umilki
orain bereziki
ohiturei jarraiki
bagoaz alaiki
testigua emanaz
beste norbaiti.



**GURE ESKERRIK
BEROENA
OA KULTUR
ELKARTEAREN
IZENEAN**

***LIZTORMENDI*
ELKARTEARI**

1983-84 ikasturtea

Aitziber Makazaga Alustiza
Miren Makazaga Alustiza
Aloña Salsamendi Telleria
Iker Aizpeolea Zaldua
Iñaki Zabalo Lapizondo
Koldo Aizpeolea Zaldua
Iban Garcia Urkia
Arkaitz Aizpeolea Legorburu

1984-85 ikasturtea

Aitziber Makazaga Alustiza
Miren Makazaga Alustiza
Aloña Salsamendi Telleria
Iker Aizpeolea Zaldua
Iñaki Zabalo Lapizondo
Koldo Aizpeolea Zaldua
Iban Garcia Urkia
Arkaitz Aizpeolea Legorburu
Aitor Zabalo Lapizondo
Iraitz Iparragirre Izagirre

1985-86 ikasturtea

Iker Aizpeolea Zaldua
Iñaki Zabalo Lapizondo
Koldo Aizpeolea Zaldua
Iban Garcia Urkia
Arkaitz Aizpeolea Legorburu
Aitor Zabalo Lapizondo
Iraitz Iparragirre Izagirre
Maitane Salsamendi Telleria
Alaitz Makazaga Alustiza

1986-87 ikasturtea

Koldo Aizpeolea Zaldua
Iban Garcia Urkia
Arkaitz Aizpeolea Legorburu
Aitor Zabalo Lapizondo
Iraitz Iparragirre Izagirre
Maitane Salsamendi Telleria
Alaitz Makazaga Alustiza
Arantzazu Muñoa Errasti
Itxaro Alustiza Lasa

1987-88 ikasturtea

Iban Garcia Urkia
Arkaitz Aizpeolea Legorburu
Aitor Zabalo Lapizondo
Iraitz Iparragirre Izagirre
Maitane Salsamendi Telleria
Alaitz Makazaga Alustiza
Arantzazu Muñoa Errasti
Itxaro Alustiza Lasa
Patxi Zulueta Herrero

1988-89 ikasturtea

Arkaitz Aizpeolea Legorburu
Aitor Zabalo Lapizondo
Iraitz Iparragirre Izagirre
Maitane Salsamendi Telleria
Alaitz Makazaga Alustiza
Arantzazu Muñoa Errasti
Itxaro Alustiza Lasa
Patxi Zulueta Herrero
Ion Muñoa Errasti
Aimar Balerdi Aierbe
Nahikari Alustiza Elorza
Maitena Alustiza Elorza

1989-90 ikasturtea

Maitane Salsamendi Telleria
Alaitz Makazaga Alustiza
Arantzazu Muñoa Errasti
Itxaro Alustiza Lasa
Patxi Zulueta Herrero
Ion Muñoa Errasti
Aimar Balerdi Aierbe
Nahikari Alustiza Elorza
Maitena Alustiza Elorza
Beñat Zubeldia Alustiza
Urki Balerdi Aierbe

1990-91 ikasturtea

Arantzazu Muñoa Errasti
Itxaro Alustiza Lasa
Patxi Zulueta Herrero
Ion Muñoa Errasti
Aimar Balerdi Aierbe
Nahikari Alustiza Elorza
Maitena Alustiza Elorza
Beñat Zubeldia Alustiza
Urki Balerdi Aierbe

1991-92 ikasturtea

Ion Muñoa Errasti
Aimar Balerdi Aierbe
Nahikari Alustiza Elorza
Maitena Alustiza Elorza
Beñat Zubeldia Alustiza
Urki Balerdi Aierbe
Garazi Zubeldia Alustiza

1992-93 ikasturtea

Ion Muñoa Errasti
Aimar Balerdi Aierbe
Nahikari Alustiza Elorza
Maitena Alustiza Elorza
Beñat Zubeldia Alustiza
Urki Balerdi Aierbe
Garazi Zubeldia Alustiza
Jone Oria Abendibar
Ainara Ezeizabarrena Alustiza
Jaione Arnaez Telleria

1993-94 ikasturtea

Beñat Zubeldia Alustiza
Urki Balerdi Aierbe
Garazi Zubeldia Alustiza
Jone Oria Abendibar
Ainara Ezeizabarrena Alustiza
Jaione Arnaez Telleria
Uxue Arnaez Telleria

1994-95 ikasturtea

Garazi Zubeldia Alustiza
Jone Oria Abendibar
Ainara Ezeizabarrena Alustiza
Jaione Arnaez Telleria
Uxue Arnaez Telleria
Nelida Ferreira Lopez
Eneko Arcelus Bengoetxea
Olatz Aranburu Iñurrategi







1995-96 ikasturtea

Garazi Zubeldia Alustiza
Jone Oria Abendibar
Ainara Ezeizabarrena Alustiza
Jaione Arnaez Telleria
Uxue Arnaez Telleria
Nelida Ferreira Lopez
Eneko Arcelus Bengoetxea
Olatz Aranburu Iñurrategi
Iñaki Intxausti Iturzaeta
Laida Alustiza Aseginolaza

1996-97 ikasturtea

Jone Oria Abendibar
Ainara Ezeizabarrena Alustiza
Jaione Arnaez Telleria
Uxue Arnaez Telleria
Nelida Ferreira Lopez
Eneko Arcelus Bengoetxea
Olatz Aranburu Iñurrategi
Iñaki Intxausti Iturzaeta
Laida Alustiza Aseginolaza
Ainhoa Arcelus Bengoetxea
Ander Arnaez Telleria

1997-98 ikasturtea

Nelida Ferreira Lopez
Eneko Arcelus Bengoetxea
Olatz Aranburu Iñurrategi
Iñaki Intxausti Iturzaeta
Laida Alustiza Aseginolaza
Ainhoa Arcelus Bengoetxea
Andoni Alustiza Aseginolaza

1998-99 ikasturtea

Nelida Ferreira Lopez
Eneko Arcelus Bengoetxea
Olatz Aranburu Iñurrategi
Iñaki Intxausti Iturzaeta
Laida Alustiza Aseginolaza
Ainhoa Arcelus Bengoetxea
Andoni Alustiza Aseginolaza
Mikel Oria Abendibar
Ander Foroni Ruiz De Larrinaga
Jokin Intxausti Iturzaeta

1999-2000 ikasturtea

Iñaki Intxausti Iturzaeta
Laida Alustiza Aseginolaza
Ainhoa Arcelus Bengoetxea
Josu Etxeberria Garcia
Mikel Etxeberria Garcia
Andoni Alustiza Aseginolaza
Mikel Oria Abendibar
Ander Foroni Ruiz De Larrinaga
Jokin Intxausti Iturzaeta

2000-01 ikasturtea

Ainhoa Arcelus Bengoetxea
Josu Etxeberria Garcia
Mikel Etxeberria Garcia
Andoni Alustiza Aseginolaza
Mikel Oria Abendibar
Ander Foroni Ruiz De Larrinaga
Jokin Intxausti Iturzaeta

2001-02 ikasturtea

Josu Etxeberria Garcia
Mikel Etxeberria Garcia
Andoni Alustiza Aseginolaza
Mikel Oria Abendibar
Ander Foroni Ruiz De Larrinaga
Jokin Intxausti Iturzaeta
Oihane Lazkanoiturburu Alustiza
Haitz Balerdi Aierbe
Irati Saez De Egilaz Junquera
Izar Foroni Ruiz De Larrinaga

2002-03 ikasturtea

Andoni Alustiza Aseginolaza
Mikel Oria Abendibar
Ander Foroni Ruiz De Larrinaga
Jokin Intxausti Iturzaeta
Oihane Lazkanoiturburu Alustiza
Haitz Balerdi Aierbe
Irati Saez De Egilaz Junquera
Izar Foroni Ruiz De Larrinaga
Maialen Alustiza Aseginolaza

2003-04 ikasturtea

Mikel Oria Abendibar
Ander Foroni Ruiz De Larrinaga
Jokin Intxausti Iturzaeta
Oihane Lazkanoiturburu Alustiza
Haitz Balerdi Aierbe
Irati Saez De Egilaz Junquera
Izar Foroni Ruiz De Larrinaga
Maialen Alustiza Aseginolaza
Mikel Ayensa Gonzales
Josu Lazkanoiturburu Alustiza
Aroa Saez De Egilaz Junquera

2004-05 ikasturtea

Oihane Lazkanoiturburu Alustiza
Haitz Balerdi Aierbe
Irati Saez De Egilaz Junquera
Izar Foroni Ruiz De Larrinaga
Maialen Alustiza Aseginolaza
Mikel Ayensa Gonzales
Josu Lazkanoiturburu Alustiza
Aroa Saez De Egilaz Junquera
Irenia Apaolaza Quintela

2005-06 ikasturtea

Oihane Lazkanoiturburu Alustiza
Haitz Balerdi Aierbe
Irati Saez De Egilaz Junquera
Izar Foroni Ruiz De Larrinaga
Maialen Alustiza Aseginolaza
Josu Lazkanoiturburu Alustiza
Aroa Saez De Egilaz Junquera
Irenia Apaolaza Quintela
Haizea Foroni Ruiz De Larrinaga
Adur Balerdi Aierbe
Haitz Iturrioz Sodupe

2006-07 ikasturtea


Haitz Balerdi Aierbe
Irati Saez De Egilaz Junquera
Izar Foroni Ruiz De Larrinaga
Maialen Alustiza Aseginolaza
Josu Lazkanoiturburu Alustiza
Aroa Saez De Egilaz Junquera
Irenia Apaolaza Quintela
Haizea Foroni Ruiz De Larrinaga
Adur Balerdi Aierbe
Haitz Iturrioz Sodupe

2007-08 ikasturtea

Maialen Alustiza Aseginolaza
Josu Lazkanoiturburu Alustiza
Aroa Saez De Egilaz Junquera
Irenia Apaolaza Quintela
Haizea Foroni Ruiz De Larrinaga

Adur Balerdi Aierbe
Haitz Iturrioz Sodupe
Aizpea Elortza Elorza
Eki Iturrioz Sodupe

Burdinaren Mendia, lehen eta oraina



Aizpeako meategietan XI. mendean hasita ustiatu izan da burdina. Ustiaketa honen ondorioz, paisai berezi bat garatu da, **BURDINAREN LURRETAKOA**.

Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren barruan, 150 hektarea zabaletan, mendeetan zehar burdina ustiatzeko erabili ziren teknika ezberdinen inguruko aztarnak aurkituko ditugu. Honi, inguruari loturiko ekosistema gehitu behar zaio. Aizpeak gaur egun duen paisaia gizakiari zor zaio, berak moldatu du mendiak dauzkan osagarri eta alderdi ekologikoen gainean.

2007ko martxoan, hau dena ezagutzeko hainbat panelekin ibilbide ezberdinak prestatu genituen. Bestalde ezin ditugu ahaztu hiru kiskaltze labeak eta honen inguruan ditugun biltegi, bolborategi, trenbide, aireko kable, kargaleku,...

2008ko martxoaren 8a Zeraindarrontzat aspaldian amestutako eguna izan zen. Aizpitta Adieraztegiak herritarrontzat bere ateak ireki zituen. Historikoki hitz egitean betidanik Aizpeako Meategiak bezala ezagututakoa, **BURDINAREN MENDIA**rekin bataiatu genuen eta **AIZPITTA ADERAZTEGIA**rekin garai berri bati hasiera eman.

Aizpitta Adieraztegia, gure paisaiaren historia ezagutu nahi dutenentzako Aizpeako Burdinaren Mendiko ikurra da. Gure historiaren hiru maila adierazten dira bertan: Lehenengo, mendi honetako ingurumenaren bilakaera; bigarren, burdinaren ustiaketa, eraldaketa eta esportazioa; eta hirugarren, meatzearen ustiakuntzaren eragin ekonomiko eta soziala.

Honetarako, teknologia

aurreratuenak erabili dira. Bisita pantaila ukigarri batekin hasten da. Jarraian Burdinaren Mendiko historia eta garaiko bizimodua azaltzen duen ikus-entzunezkoa erakusten da.

Beheko solairuan panel eta interaktiboek esker Burdinaren Mendiko paisai eta historia azaltzen dira. Erdian, Manuel Laborderen bildumako piezak aurkituko ditugu. Labordek bere garaian osatutako bilduma hau Zerainen bertan eraiki zuen etxetxoan jarri zuen, gerora Gipuzkoako Foru Aldundiaren ondare bilakatu da eta berriro Zeraina bueltan etortzea zeraindar guztiontzako urrats berezia izan da herriaren historian. Azkenik, Zerain lotuta dagoen hainbat ibilbideetako informazioa ematen da.

Bisitaldiari herritarren argazkiarekin emango zaio amaiera. Herritarren partehartzeari esker

lortutako proiektua baita Aizpitta Adieraztegia. Zeraingo Parke Kulturalaren elementu garrantzitsuen zeraindarrak direla garbi gelditu da beste behin eta beraiek gabe, proiektu honek ez luke zentzurik.

AIZPEAKO PAISAIA- INGURUNEAREN BILAKAERA

Aizpeako bazterrak landu egin ditu gizakiak bere jardunaz, ingurunean aldaketa handiak eraginez eta paisaia berezia sortuz. Bertan kokatu zirenetik, gure aurreko zeraindarrak oreka batean bizi izan ziren naturarekin. Inguruan zeuzkaten etorbideekin betetzen zituzten premiak. Nekazaritza, abeltzaintza, baso lanak eta meagintza ziren herrian eta baserrian bizimodua ateratzeko zeuzkaten jarduera nagusiak.

Zeraindarrek betidanik jakin izan dute lur azpian mineral aberastasun handia dagoela eta naturak eskainitakoari etekinak kentzen. Burdina, beruna, kalamina, blenda eta galena, besteak beste.

Mineral hauen bila ibili da gizakia mendeetan zehar. Ustiaketa hauei esker mendia kiskali, apurtu,... egin da. Hala ere, aurreneko bizi zirkinean berriro ere kate ekologikoa hasi da



garatzen.

Basoko bizitza errota bat da: biziduna atzeko izakiei esker bizi da.

Goroldioak eta likenak ezinbestekoak dira eboluziaren katean, haiek kolonizatzaileen bide urratzaile baitira. Ondoren aurreneko belarkarak agertzen dira harrietan: materia organikoz aberasten dute lurra belarkara horiek. Denboraren buruan, neurri txikiko zuhaixka forma batzuk nahasten dira belarrekin eta modu horretan hazi egiten da lurra jasotzen duen biomasa.

Honen adibide garbia da gaur

egun Burdinaren Mendia. Mila urtetik gora aritu izan gara zeraindarrak Aizpeako mendiari burdina kentzen eta hau apurtzen. Gaur egun, honi esker lortutako inguru berezi eta bakarra aurki dezakegu bertan.

BURDINAREN USTIAKETA HISTORIAN ZEHAR

XI. mendekoak dira Aizpeako meatzean lehenengo aztarnak. Zeraingo meatzeen aurreneko aipamenak behe Erdi arkoak dira, Seguran Burdinolen Fuero eman



HERRI MUSEOA. Herriko bizimodu eta ohiturak
1711.KO KARTZELA.

LARRAONDOKO ZERRATEGIA. Uraren indarra XIX. M.
AIZPEAKO MEATEGIAK. Burdinaren ustiapenaren garapen

MANDIOA DENDA. Herriko produktuak eta artisautza
HARIZTIERDI ATERPETXEA.

www.zerain.com

Zerain Parke Kulturala

Zeraingo turismo bulegoa
Herriko plaza, z/g.
20214 ZERAIN
Tel. 943 80 15 05
Faxa 943 80 16 06
turismobulegoa@zerain.com

zutenekoa 1338. urtean.

1512an, Fernando Katolikoa erregeak **Aretxabaletako Otalora** familiari eman zizkion alkohol mineral meatzeak. Aintzinako Erregimeneko pribilegioen, erabilpenen eta hituren amaiera ekarri zuen legedi berritzaile batek 1825ean. Otalora Maiorazkoak, meatzeen jabetza egiaztatuko zuten agiriak aurkeztu behar izan zituen. Familiak galdu egin zuen kontzesia azkenean, egiaztapen hori aurkeztu ezinik.

XIX. mendean lurraren ustiatzea gero eta handiago bihurtu zen Zerainen. Bi Gerra Karlistetan (1833-1839 eta 1872-1876) armada matxinatuak bere esku hartu zituen Zeraingo lurak, gerrako beharrak zirela eta meatzeari beruna kentzeko. Zeraingo kartzelan zeuzkaten gerrako presak derrigorreko lanera makurrarazi zituzten orduko **Reales Minas de Cerain** delakoan. 40.000 fusil bala egiteko adina material atera behar zuten.

1852an **Unión de Cerain** sortu zen eta 1855ean **Resurrección**. Kapital handiena bildu zuten bi elkarte hauek bat eginda **Sociedad Minera y Fundidora Unión de Cerain** osatu zuten. Orduan Zeraingo barrutian 177 langilek 34.484 tona



20214 ZERAIN
Maria Luisa Urrestarazu
Tel: 680 171 291

mineral kiskali ekoiztu zuten.

1892an **The Cerain Iron Ore Company Limited** konpainia ingelesaren eskuetara pasa ziren. Gaur egun aurki ditzakegun instalazioetako batzuk beraiek eraikitaki zituzten: Kiskaltze labeak, herrestabidea, trena...

Burdinaren mekatuak 1909an izan zuen krisiaren ondoren, **The Cerain Mines Ltd**-ek artu zuen lekukoa **Orconera**-rekin batera. Enrique Sandon Mathensek ordezkatu zituen bi konpainia hauek.

Euskal Herriko Ajuriatarrek meatzeetan egindako lanek ere garrantzia izan zuten.

Enrique Sandonek **Alemaniano Montana S.A.** enpresaren esku utzi zituen meatzeak 1930eko hamarkadaren hasieran. 1838an **Compañía de Explotaciones Mineras Aralar S.A.** bihurtu zen.


Inbertsio handiak egin zituen konpainia berriak baina ozta ustiatu zituen aurretik etekin handiak emandako meatzeak. Aireko kable linea berria, trenbide berria, labeen instalakuntzak egokitu, Makinetxe... egin zituen. 1942an utzi zuten barrutia.

1940an txatarraren prezioak goia jo zuen, eta Zerain eta Mutiloako minerala urre bihurtu zen. Honexegatik **Patricio Echeverria S.A.** etorri zen gure meatzetara 1951a bitartean.

BURDINAREN USTIAKETAREN ERAGIN EKONOMIKO ETA SOZIALA

XVIII. mendea bitartean, meatzeen ustiapena nekazaritzako lanen osagarria izan zen. Urteko hilabete lehorretan egiten zen lan

Meategietako lanbideen kalifikazioa eta soldatak 1938an (pta/egunean)



meategietan, hiruzpalau meatzari biltzen zituzten taldetan antolatuta.

Meategietako jarduera azkar horrek gizarte mugimendu bizia eragin zuen Aizpeako auzoan eta Zerain osoan, oro har. Atzerriko lehen konpainiak ezarri zirenetik, kanpoko tekniko eta langileak ere erruz etorri ziren, eta horrek errotik aldatu zuen baserri giroko gizarte hau, bai nortasunean bai ingurukoekiko hartu emanean. Arduradun eta tekniko ingeles eta alemaniarrez gain, penintsulako bazter guztietatik iritsi zen esku indarra, lan premiaz, batez ere galegoak. Familia osoak, emazte eta seme alabekin etorri ziren eta baserri huts eta kantinetan bizi izan ziren

denak elkarrekin.

Aizpeako auzoa ez zegoen langile hauek denak hartzeko eta guzti hauei ostaturia eta mantenua emateko prestatua. Barrakoiak, kantineak eta bordak ugaritu egin ziren herri osoan, batez ere Aizpean.

Populazioa hazi ahala, aisialdirako lekuak ere ugaritu egin ziren; haietan biltzen ziren langileak eta herriko gainerako bizilagunak lanetik kanpoko orduak igarotzeko. Soinujoleari ordaindu eta erromeriak ezagunak ziren tabernetan. Bolatokiek ere garrantzia zuten, kantina bakoitzak zuen berea.

Zeraindarrentzat eta baserriko jarduerarentzat laguntza bat zen meatzetako ustiaketa hau.

ARANBURU HARATEGIA



ZURE ZERBITZURA

Kale Nagusia, 34

Tel.: 943 80 10 14

SEGURA

Burdinaren Mendia, 'monumentu multzo'



Zeraingo Aizpeao meategiak monumentu multzo izendatu ditu Eusko Jaurlaritzak. Izan ere, Jaurlaritzaren esanetan "ukigabe" mantendu ditu garrantzi handiko zenbait elementu. Aizpeako meategietan XI. mendean hasi eta XX. mendera arte ustiatu da minerala. Izendapen honek Araba, Bizkai eta Gipuzkoako meatze esparru garrantzitsuena bihurtu du.

Eusko Jaurlaritzak, uztailaren 1eko 126/2008 dekretuan, Aizpeako meategiak, Sailkatutako Kultur ondare gisa deklaratu zituen, Monumentu multzo izendapena emanaz.

Dekretuan agertzen den bezala, Zeraingo Aizpeako meategietako ondare multzoa "ikaragarrienetakoa" da, ez Gipuzkoan bakarrik, baita Euskal Herri osoan ere. Bertan behera utzi zirenetik, bertako instalazioek ia osorik iraun dute eta gaur egun meategietan balio

ukaezineko egitura interesgarriak ditugu.

Aizpea, Aitzurdin, Basaltegi eta Amizal aldeetan iraganeko meatzaritzaren aztarna garbiak daude. Mea ateratzeko jarduerak aldaketa sakonak eragin zituen paisaian, eta hura amaitu zenean landaretzak hartu zituen bazterrak. Inguru honetan, antzinatik, aire zabalean edo galerietan erraz ustia zitezkeen material askotarikoak egon ziren.

Babestutako elementuen artean mea gordinaren aska eta deskarga gunea, hiru kiskaltze labeak, kiskalitako mearen kargalekua, aireko kablearen goialdea, aireko jatorrizko kablearen hasierako egiturak, erregai biltegia, meategiko sarrerak, arrapalak, ingelesen eta alemanen trenbideetako zelaiguneak, alemanen trenbidearen biraketa plataforma, tobera, aireko kablearen pilareak, etab daude.

Baserri eta auzoetako seinaleak

Honezkero ikusita egongo zarete herri inguruan edo Aizpeko Burdinaren Mendian, auzo, baserri edota ibilbideak markatzen dituzten burdinazko seinaleak. Batzuek gustukoak izango dituzue eta beste batzuek agian ez. Baina dudarik gabe, orijinalak behintzat, badira. Beste herri batzuetan egurrezkoak, plastikozkoak edota beste material batzuekin egindakoak erabili ohi dituzte eta gu ere ibili ginen aukera horiei begira, baina azkenean burdinaren aldeko apostua egin genuen.

Dena aurreko legealdian hasi zen. Aizpeko meategiak edota "Burdinaren Mendia" delakoan, ibilbide bat egitea pentsatu zen. Ibilbide hau oinez egin beharrekoa izango zen eta bere helburua burdinaren ustiaketaren eraginez mendiak izan zuen bilakaera, bertako jardueraren historiaren ezagutza, bertan dauden elementuak (plano inklinatua, labea, galeria, makina-etxea...) ikustea izango zen batetik; eta bestetik, jarduera amaitu zenean naturak gizakiak hainbat urtetan suntsitutako azalera berreskuratzeko duen gaitasuna erakustea. Beraz, ibilbide hau gidaririk gabe egiteko modukoa izango zen eta zenbait puntutan informazio panel didaktiko batzuk jarriko ziren.

Dakizuen bezala, zeraindarron filosofia etorkizunari begiratzea da, gure ondarea ahaztu gabe, ze ez dago aurrera egiterik zer izan ginen jakin gabe; eta bertan ditugu adibide garbiak: Nekazal jardueraz gain, zeraindarrak bazekitela Oako harria lantzen ere, eta baita lur azpian zegoen mineralarekin beruna, eta gerora horren garrantzizkoa izango zen burdina ateratzen ere.

Ba, justu, hauxe izan zen burdinazko panelak eta seinaleak



jartzearen arrazoiak: burdinaren jarduerari lotutako mendian, burdinazko panelak. Eta ondoren hau herrira zabaldu zen auzo eta baserriak seinalizatzeko. Seinale hauek *corten altzairu* delakoaz eginikoak dira eta material berezi honen ezaugarri bat zera da, erdoildu egiten dela, baina erdoil honek berak babesten duela burdina gehiago degradatu gabe.

Hurrengo pausoa izenak jartzea izan zen. Ibilbidean daudenak plastikoaren antzeko material bat dute itsatsita eta bertan gezi bat edo izenak ageri dira. Baserri izenak seinalizatzen dituztenak, ordea, desberdinak dira. Hauek Joxe Mari Telleriak eta Haritz Egurenak diseinatu eta moldatutakoak dira; eta izenak xaflan idatzita daude, laser-mozketa bidez. Leku izenak Zeraingo toponimia mapan jasotakoari jarraituz idatzi dira; batzuk esaten den bezalatsu idatzita daude eta beste batzuk ez hainbeste.

Oraindik bakarren bat falta zaigu kolokatzeko eta epe motzera, mendi bizikleta ibilbidea eta oinezko hainbat ibilbide sistema bera jarraituz markatzeko asmoa dugu, dirulaguntza bat dagoela aprobetxatuta.



Espero dugu zuen gustukoak izatea eta inor galdu gabe ibiltzea. A! eta ijitoek ez ditzatela txatarretarako eraman.

Xabier Dorronsoro

Gizadiaren defentsan

Joxe Mari Etxaluze

-1-

Gure munduko ibil-bidean
ba-da hainbat atsekabe,
usoan gisa igaro nahi guk
eragozpenikan gabe.
Izadi berak jarriak ditu
zorrotzak hainbeste lege
gizona bihurtu ohi dutenak
bere gauzaren mirabe,
mundu honetan ez leike izan
zorion osoan jabe.

-3-

Uso xarmanta, jostalaria,
inoiz botea naiz goiti,
halare nire burua ez det
jotzen nik pizti basati.
Gure lurrian inoiz bizia
kendu zaio aita bati,
ama alargun, haurrak umezurtz,
kabi bat egin lau zati,
izenik ez dun pekatu latza
nik hori jotzen det beti.

-5-

Gertatzen dana ikusi eta
bete naiz burutapenez,
amets ilunak egiten ditut
aspalditxo hontan gauez.
Beldur naiz bizi nahi ote degun
hemen Talionen legez,
begi ta hortzen truke begi, hortz,
eta gogorrena juez,
uso hiltzea gaitzesten degu
askok gizon hiltzea ez.

-2-

Hegazti danak lumaz jantzirik,
Piztiak berriz ileak,
Batzuk alperrak izan ditezke,
Beste batzuk langileak.
Zalantzik gabe askotxo dira
Gizadian ongileak,
ta beste asko izan ditezke
guretzako gaizkileak
danak gizonan serbitzurako
jarri zitun EGILEAK.

-4-

Hainbeste gertakizun tristetan
sarritan hainbat aitzaki,
zer jokabide babeste degun
gure Jaungoikoak daki.
Gaizki zer dagon eta errudun
nor dan azkar erabaki,
ekologia sarri aitatzuz
piztientzako erruki,
hobe genduke gizakiari
begirunea eduki.

-6-

Lazkano maite, etzak pentsatu
ni hire aurka nagonik,
ez dit pentsatzen hik ehiztariak
gorrotatzen ditukanik.
Gorrotaren amak sekula
ez dik sortu ume onik,
munduan ez dek egin oraindik
aurpegi bat dun txanponik,
hik aztertuan beste alde
gaur aztertu nahi nian nik



OSTATU

JATETXEA

20214 ZERAIN
Tel.: 943 80 17 99

Gaztetako ibilerak III

Joxe Mari Etxaluze

Iaz agindu bezala Zeraingo errekan amorraia nola sortu zen kontatzera nator.

Gu erreka ondoan sortuak izanik arrantzarako afizioa edo grina oso gaztetatik izan genuen eta uda parte guztian errekan zerbait harrapatzen ibiltzen ginen, ezkalu, kangreju edo karramarro, zapaburuak edo zapabixiak, aingirak, maskarrak, eta hitz baten esanda uretan mugitzen zen guzia.

Ez genuen arrantzarako tresna egokiak erosteko dirurik, eta ahal zen moduan ibiltzen ginen, zaku zaharren batekin egiten genuen sare antzeko zerbait eta harekin ibiltzen ginen, baina gehienetan eskuz eta hanka hutsik, ez genuen errekan irristatzeko eta hankak kristal zatiz ebakitzeko beldurrik izaten, errekan irristatu gabe ibiltzen ere ikasi egiten da edo ohitu egiten zara, gaur aisa joango ginake ipurdiz gora, baita hezur zahar gogor hauek azkar apurtu ere. Gaztetasuna gauza ederra da, ai gorde ahal baledi!!!

Gu beti amorrain ametsetan bizi ginen eta horretarako Aizkor ondoko erreketara joan behar, ez zegoen beste aukerarik, hamaika joan etorri eta ibilera txar egin genuen sasoi haietan, afizioak eta gaztetasunak eragiten dituen lanak.

San Agustin egun batez Aizkor ondora joan ginen amorrai eta aingira batzuk harrapatu asmoz. Goizean goiz irtenda joan ginen gu, Bernardo eta Joxe Mari, Joxe Luis Zikiri, Araneko Joxe eta Joakin ere uste dut gurekin zela.

Brinkola-zaharrera iritsi eta erreka-txikira joan behar genuela egun hartan aurrez erabakia genuen, baina kukuak oker jo zigun; erreka hau agorturik zegoen gu sartu ginen unaran behintzat, eta gero Aierdi errekarra joan ginen. Han, amorrai dezente zegoen, arrantzan eguerdira arte ibili eta etxera etorri ginen egindako arrantza berrogeita hamar bat amorrai eta aingira bakar batzuk izango ziren.

Arratsaldean Brinkolan festak eta berriz bertara joatea erabaki genuen. Mendiz joan ginen, ez genuen oinetako minik. Ai, orduko sasoi bategi!!!! Han festan ibili, dantza puska bat egin, bola konkurtsoan bolak bota, (saria jasotzen ez zen lanik izango) eta ilunabarrean Angelenean afaldu eta ordaintzeko hasi zenean Joxe Luis Zikiri konturatu omen zen kartera falta zuela. Berak ez zekien non galdu zuen, lagunok ordaindu omen genion afaria.

Arratsaldean festara joan ginenak eta goizean arrantzan ibili ginenak ez ginen koadrila berdina. Festan lagun koadrila ginen: Luis, Joxe Luis, Joakin, Inaxio eta Joxe Mari behintzat koadrila hori izaten ginen.

Brinkolan festa bukatu zenean bertan trena hartu handik Beasaina etorri, han Zegamako autobusa hartu eta Zubiberrin jaitsi eta etxera. Horrelaxe ibiltzen ginen umore ederrean.

Egun hartan behintzat bi buelta egin genituen Aizkorrontotik, ez genuen ibiltzeko nagirik izaten. Horrelaxe izaten ziren gure jolasak, festak eta ibilerak. Gaurko gazteak ez dira era horretan dibertitzen, bizitzeko era asko aldatu da. Gaur kotxea dauka edonork joan etorrirako, Brinkola baino urrutiago dauden tokietara ere aisa joaten dira.

Handik zortzi egunetara izango zen, hurrengo asteburuan: Berriz arrantzara joatea erabaki genuen Aizkorrontora. Koadrila berdintsua izan ginen Murgiondoko Migel genuen berria gurekin joateko baina honek huts egin zigun, gure Martinek beste norabait joan behar zuen arratsaldean eta ilunabarrean Brinkola-zahar ondoan zegoen guri itxoi, han baigenuen elkartzeko lekua jarrita. Hala abiatu ginen errekarra arrantzari ekiteko.

Hamar t'erdia inguru izango ziren arrantzan hasi ginenean, handik goizeko laurak ingurura arte ibili ginen arrantzan, orduan oinetako lehorrak jantzi, zerbait jan, fruta apurren bat edo horrela izango genuen gehienez ere, eta etxera etortzeko, trasteak hartzen hasi ginenean, konturatu ginen Artegiko Praiskoren sardexkak eta tenazak galdu genituela. Erreka edo bide bazterren batean han geldituko ziren. Pena galanta hartu genuen baina alferrik, ez zegoen haien bila hasterik.

Hala ekin genion etxerako bideari handik Larrosaina igo lehenengo, handik Saluitara jatsi eta beheraka Ariztizabal baserrira iritsi ginen. Eguna argitzen hasia zen, Ariztizabalgo etxe ondoan melokotoi gorri eder bat zegoen bete-betea, handik poltsikoak ondo bete eta haiek janez etorri ginen etxera. Berrogeita hemezortzi amorrain eta aingira bakar batzuk genituen egindako arrantza, gauean Marianen jatea erabaki genuen eta hala partitu ginen.

Batzuk zortziretako mezetara joan ginen, beste batzuk ehizera irten behar zutela eskopeta hartuta. Tortola garai aparta da agorraren zortzi inguru hori. Hego haizea zebilen bixi-bixi, eta tortola asko omen zegoen, baina apenas asko harrapatu zituzten, saiatu arren. Tortolak argiago egongo ziren gau guztia Aizkorrontoan arrantzan ibili zirenak baino.

Arratsaldean siesta apurren bat egin eta Liernira joan ginen festara han dantzan umore ederrean ibili, iluntzean neska laguntzeren bat egiteko aukera izan bazan pozik eta bestela konforme, eta Zeraina Marianera afaltzera. Gauean harrapatutako amorraiak, aingirak eta txuletak

genituen afaltzeko.

Maria hau zegamarra zen, Zeraingo Iñurrategi-txikiko Feliperekin ezkondua eta Harizti-barren etxean bizitzen jarria. Ez zuten seme-alabarik. Felipe hau, Zerainen alkate izan zen 1916tik 1918ra bitartean. Felipe, buruko gaixotasun batekin luzaro gaixo egon ondoren hil zen. Maria oso emakume berezia zen, petral xamarra ere bai agian, baina oso sukaldari ona zen.

Harizti-barren etxe honekin gauza bitxia gertatzen da. Guk beti Mariane izenez ezagutu genuen, gero Bixenta jarri zen bertan bizitzen eta Bixentane deitzen zitzaion. Gaur Koro bere alaba bizi da bere familiarekin, eta Korone deitzen zaio. Etxe horren benetako izena zeraindar askok agian jakin ere ez dute egingo.

Etxeandui errekan amorraia nola sortu zen kontatzeko hasi naiz eta aspaldian oso aldenduta ibili naiz hartutako bidetik. Guk arrantza gaietan beti amorraiarekin amets egiten genuen, baina Zeraingo errekan ez zegoen eta guk nolabait amorraia jarri nahi genuen Zeraingo errekan, eta hori lortzeko bide bakarra amorraia bizirik ekarri eta errekan botatzea zen. Orduan ez zegoen ez Diputazioko eta ez Federazioko laguntzarik, ez alebinik, ez arrautzarik, ez ezer.

Horretarako Telleriarteko lagun batzuekin hitz egin eta Aizkor ondoan eskuz harrapatu eta Zeraingo errekar ekartzeko plana egin genuen. Beraiek lagunduko zigutela amorraiak harrapatzen, hala hitz eginda jarri eta larunbat arratsalde batean joan ziren Zeraindik. Bernardo Etxeandikoa eta Joxe Luis Zikirikoa eta Telleriartetik Bitor (haundi) eta Iñaxio Xelanda (Katagorri) goitizenez. Laurak ibili omen ziren amorraiak harrapatzen Aizkorrontoan. Etxeandiko bi esne marmita omen zituzten amorraiak ekartzeko ontziak eta Etxeandiko Lambreta motoa bidea ahal zen azkarren pasatzeko

behikuloa.

Hogeita bost amorrai harrapatu omen zituzten denak eskuz, esne marmitek urez bete, amorraiak hara bota eta ahalik eta azkarren Zeraina etorri behar amorraiak bizirik iritsiko baziren.

Brinkola-zaharren irten motorrean atzean bi esne marmita urez beteta esku banatan hartuta, ez ziren nahi baino lehen iritsiko Araneko Artégira.

Aztirira iritsi orduko amorrai gehienak tripaz gora jarriak omen zitzaizkien. Urak oxigenoa galtzen duenean gertatzen da hori. Larri iritsi omen ziren, amorrai guztiak hilko zirelakoan, eta egin zuten lan dena pikutara joango zitzaizen beldurrez.

Araneko Artégira iritsi zirenean Joxe Luis Zikirik esku denak hilda omen zeuzkan, (ez da harritzekoa) eta gure Bernardok marmitek kendu behar izan omen zizkion eskuetatik, hala ahal zen azkarren bi marmitek errekarera husteko. Bata Aizpe errekarera eta bestea Larraondo errekarera hustu omen zituzten.

Amorraiak errekarera botata gero ere, tripaz gora segi omen zuten puska batean, eta bata besteari esaten omen zioten “ez duk bat bera ere bizirik aterako, hainbat lan egin eta dena alperrik izango diagu”.

Hala zigarro bana erretzen lasai egon eta gero berriz errekar amorraiei begiratzera joan zirenean denak piztu eta harripean ezkutatuta zeuden. Ez omen zuten poz makala hartu.

Horrelaxe sortuak dira Zeraingo errekan amorraiak, eta horrelaxe gure betiko ametsa egi bihurtu zen.

Argibide hauek denak, edo gehienak, Joxe Luis Zikiriri zor dizkiogu. Memoria argia du Joxe Luisek, horrelaxe gorde dezala urte askoan.

Jarraituko dut beste batean arrantza kontuekin.



ARAKAMA
barne diseinua

Hiribarren, 24 Tel. 943 888 717 - 652 775 955 a.arakama@euskalnet.net
20210 - LAZKAO - Gipuzkoa

Laborderen bilduma

Elizabete Garmendia

Kuxkuxean ibiliko ginen orduan ere ahizpa eta biok lagun parearekin, Jauregi eta Mendi arteko bidean. Pilarika biharamona zen, 1979ko urriaren 13a. Eta hala gabiltzala, Zerain Bordako dorreari begira, hara non azaltzen zaigun don Manuel Laborde bera. Sartzeko, erakutsiko digula han daukana. Erakutsi eta kontatu, zerron-nolatan bildu zuen, zertarako ziren tresna haiek, eta horrela, Sutegiko hauspoa lagun, olagizonen garairaino eraman gintuen. Halako bixitarik, bildumagilearen eskutik, berak jartzen zion pasio eta erudizioarekin... Bilduma eta, batez ere, gizona ezagutzeko zorte ikaragarria izan genuen arratsalde hartan. Ezagutu, ulertzen da, tankera hartzeko lain besterik gabe.


Haren biografia eta lanen berri izateko, irakurri behar dira 1988an Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona saria eman zionean Edorta Kortadik, Juan Antonio Garmendia Elosegik, Jesus Altunak eta Imanol Murua diputatu nagusiak egindako hitzaldiak. Hor jabetzen da bat nolako bizitza interesgarria izan zuen Labordek, zein jite zuen eta zenbat lan egin zuen arlo ezberdinetan.

Industrialaren ofizioz, eta etnografoa afizioz, beste zaletasun dexente ere landu zituen arren. Kultura zabala oso, eta gustua... beste hainbestekoa behar zuen izan. Andoainan, Martin Ugalde Kultur Parkera joaten naizenero, lehen Egunkaria eta orain Berria dagoen eraikinera, beti izaten dut gogoan. Laborde anaia izan zen lantegia Kultura Ondasun izendatuta dago 2000. urtetik. Manuel Labordek berak sinatu omen zuen eraikin horren proiektua, 1928an. Laurogei urte pasa eta gero, ez du galdu, ez funtzionaltasunik, ez dotoreziarik. Barruan, Montes Iturrioren freskoa, Lanaren Alegoria. Mantenu truke pintatu omen zuen Montes Iturriozek gerra ondoren pobre hartan. Izan ere, mezenas ere izan zen Manuel Laborde.

Zerain Bordak ere ez du xarma faltarik izan. Borda izena eraman arren, Zeraingo txaleta izan zen urtetan, singularrean. Mendiko M. Jesusek "hura jauja zen guretzat" esaten zidan, umetan han egindako egon eta jolasak oroitzuz, frantseseko klaseak barne. Hamaka zuriberdeak dauzka gogoan, altzari exotikoa orduan Goierrialde honetan. Hari entzunez, Karmele Goñik erakutsitako argazkiak zetozkidan burura, tartean bere ezkontzakoak. Zinematik ezagutzen dugun giro dotore eta atsegin hori sumatzen zen Zerain Bordako txokoetan.

Mendiko Trinik han zenbat jende ilustre ikusi izan duen ekarri nahi luke gogora. Manuel Laborde eskopeta hartu eta Menditik gora ehizera nola joaten zen, atzo ikusi izan balu bezala kontatzen du. Laborderenean, Mendiko esnea eta barazkiak izaten omen zituzten. Auzokoak izan, eta auzo harremana izan dute beti.

Bost eliza ikusten omen dira Zerain Bordako Sutegi



Manuel Laborde Sutegi gainetik gidari lanetan. 1979ko urriaren 13a. E. GARMENDIA.

gainetik: Gabiria, Ezkio, Itsaso, Olaberria eta Segura izango dira. Dorrea hutsik egon da urtetan. Etxekoneko Iñakiri, alkate zenean, behin baino gehiagotan entzun izan nion Laborderen bilduma itzuliko zela Zeraina. "Horri ere iritsiko zaio bere ordua" tonuarekin esaten zuen, eta halakoetan gertatzen den bezala, bilduma itzuli da Zeraina, zorionez.

Aizpitan, Inglesen Etxean, denbora ohargabea joan zait bildumaren lagina miatzen. Tresna bakoitzaren fitxa kontsultatu, zertarako den ikusi, sekula ezagutu gabeko izenak ikasi... eta edertasunaz gozatu, plantxa xume baten lauburudun dekorazioan, aitzo baten marrazkietan, errementariaren tenazen formetan... Ze artisauek noizbait egindako tresna horiek artelanaren balorea hartzen dute gaurko begiekin ikusita.

Dorretxoan baino gehiago jabetu naiz hor dagoen aberastasunaz. Egia esan, 1979ko urriko arratsalde hartan, tresneriari baino gehiago, gizonari erreparatu nion nik. Eta orduan bixita gidatua eskertu nion bezala, orain bilduma hori osatu izana eskertzen diot bihotz bihotzez.

Hasierako Sanroke afaria

1979. Lehenengo herri afaria



Gau-giro aparta dugu gaurkoa. Bazen ordua. Hainbat euri egin ondoan, gustura hartzen da Ostatu aurreko mahaiaren jiran hitzaspertu bat egitea. Gaurkoan bada, gainera, zertaz hitz egin. Etorri behintzat horretaraxe etorri gara Iñaki Koozmendi, Xanti Larraondo, Antonio Gartzia eta lauok: hasierako Sanroke afariaz hitz egitera. Mahai horren bueltan esandakoak ordenadorean sartzen hasi naiz, ahaztu baino lehen, aurtengo urtekarian emateko. Hiru lagunak gaztetako kontu zaharrak astintzen hasi orduko hor agertu zaigu Luis Aizpeolea; Otatzako Maria Jesus eta Mari Flor ere bai, handik berehala. Ez da nolanahiko koadrilla eratu seiokin, lehenengo gorabeherak gogoratu eta zehazteko. Aprobetxa dezadan aukera, eta natorren harira.

Noiz hasi zineten Sanroke eguneko herri-afariarekin?

Erantzuna azkarra izan da, bat-batekoa: "1979an". Bat datoz denak fetxa-kontu. "Hasi, Sanroke

Txiki egunean hasi ze herri-afaria, 1979ko abuztuaren 17an. Garai batean nobena izaten zen abuztuaren 16tik 24ra, juntaiziorako aitzakia. Jende asko biltzen zen nobena edo bederatziurren horretara. Herriko festak 13an hasten ziren, gibel-jatearekin, eta 17an ere zerbait ospatzen zen, nobenaren aitzakian. Horrezaz gainera, beste zertxobait ere beti ospatzen zen herrian: tiroplaton egiten zen garai batean, soinua ere izaten genuen, idiazabaldarrak ere etortzen ziren herrira eta, gero, soziedadean zerbait prestatzen genuen. Gauzak aldatuz joan ziren, ordea, urteen buruan. Sanroke eguna, abuztuaren 16a, oso hila gelditua zegoen. Hori ikusita, herri-afaria Sanroke Txiki egunetik Sanroke egunera pasatzea erabaki genuen 1985ean. Handik aurrera horrela izan dira kontuak".

Atzera itzuliz, rebobinatzen hasi da gutako bat: "1978an ere bazen herri-afaria egiteko asmoa,

gazteen artean. Baina ez zen posible izan: zerk edo zerk failatu egin zuen. Giroa ere ez zen nolanahikoa".

Noizkoa dugu pelotalekua?

Horretan ez dago duda handirik. 1984ko udaberrian hasi zen obra, eta 1985ean-edo bukatu. Hala izan ziren kontuak, guztien esanean. Ilusio handiz ikusten zuten zeraindar askok pelotalekua egitea. Pelotan egiteko aukera hobe ematen zuelako batetik, eta jai-ospakizunak eguraldi txarrekin ere egiteko aukera emango zuelako bestetik.

Nola antolatu zenuten hasiera hartako Sanroke-afaria? Non?

Ondo asko gogoratzen dira seiak horretaz. Honela diote: "hasieran, 1979an, eliz atarian egin genuen herri-afaria: ehun bat lagun pasatxo izan ginen bertan. Eguraldiak derrigortuta egin zen eliz atarian. Geroztik plazan egin izan da beti...denborak lagundu duenean".

Nondik atera zenituzten ehun lagunentzako mahaiak eta aulkiak?

Uste baino erantzun errazagoa eman diote galdera honi. "Garai inguru hartakoak dira herri-kaskoan egindako etxeak. Obretako tabloiak eta blokeak aprobetxatuz eratu ziren mahai-aulkiak, lehen urtean. Plaza ingurukoek utzitako mahaiak ere eskueran izan genituen, osagarri gisa. Gurea etxaldea amaitzen ari zen urte-ingurua zen hura, esan bezala. Bertako tabloirik eta blokerik ez zen falta izan, hortaz".

Eta dirua? Nondik atera izan da dirua herri-afarirako?

Argitasunik bada horretarako ere. Hora zer dioten: "1979 aurretik, gazteen artean antolatzen zen diru-biltzea: udalak eta herriko gazteek dirua jartzen zuten hilero-hilero. Urte horretan hasi zen udala diru gehienaz arduratzen. Handik aurrera ere, 1982ra arte hor-nonbait, jendeak dirua jartzen jarraitu genuen". Zehaztasun hauek erantsi ditu mahai bueltako beste batek: "ordura arte, festak antolatzen gazteak ibiltzen ziren. Bertsolari jaialdia, eta abar, beraiek



2007ko herri afaria

antolatzen zuten. Bertso-saioak dirua uzten zuen garai hartan, ez zorra."

Ardoa noiztik da doan, Zeraingo herri-afarian?

Erantzuna ez da batere atzeratu: "Hasieratik: 1979tik bertatik. Lehen ere bazen ohitura, beste urte-garai batean, ardoa doan partitzeko. urteberri arratsaldez egiten zen ardo- partitze hori. Aguazilak partitzen zuen, eta zeraindarrek nork bere bokadilloa ekartzen. Hor ere biltzen zen jende-mordoska, artepean. Herri-

afaria eratu zenetik, berriro ohitura zaharrari heldu zitzaion."

Nondik ekarri zen ardoa, hasiera hartan?

Bada mahaiaren bueltan, horretaz ere ondo asko akordatzen denik: "Lazkaoko San Joan bodegetatik ekarri genuen, barrika osoa. Bai tertulia ederra sortu ere! Jokalari samarra zen ardo hura, izan ere. Gero, zuzenean Erriojatik ekartzen hasi ginen, 1987an. Santi Larraondok ekarri zuen ardoa urte hartan, bere R6an".

LAKIOLA

Lanak eta Zerbitzuak



Hiribarren 6, 3º
20210 LAZKAO

Tel. / Fax: 943 16 12 02

Mobila: 639 63 86 06

617 39 40 50

lakiolanak@euskalnet.net

Jan-kontua nola? Beti ibili al da jendea, bakoitza etxetik berea ekartzen?

Oraingoan, luzexeago doa erantzuna. Horra nola: "jende gehienak bai, nork bere etxetik ekarri izan du beti. Familiak edo lagun-taldeak bildu ohi da jendea herri-afarian, eta etxean prestatutako mokadua ekartzen da mahaira. Beti eratu izan da ordea mahai berezi bat, soinu-joleentzat eta bertsolarientzat. Berrogei bat laguneko taldea eratzen zen, garai batean, aparteko mahai horretan: Anttonik etxean, edo beste zenbaitek soziedadean, prestatua jaten zuten mahai horretara biltzen zirenek. 1991n amaitu zen prestaera modu hori. Handik hona, mahai horretako jana Ostatur prestatzen da".

Noiz erosi ziren oraingo mahaiak?

Antoniok erantzun du oraingoan: "Pausoka egin dira gauzak. Lehenengo mahaiak 1980an erosi ziren, herritarren diru-laguntzaz. Marroixka-granate horiek. Gero, hortik atzera, sillak eta gainerakoak udalak jarritako diruz gehitu izan dira". Otatzako ahizpek zehaztu dute hortik aurrerakoa: "azken mahaiak 1995 aurretik erosi ziren. Guztira 450 bat lagunentzat mahai eta silla badago bildua".

Inor gonbidatzen al zen bereziki, hasiera hartan?

Erantzuna argia izan da: "inor ez". Inoiz edo behin, geroztik, pertsonalidaderik gonbidatu izan al den galdetu diet berriro, aurreko puntua zertxobait zehazteko. Bide beretik joan da erantzuna: "sekula ere ez".

Jende gehiena bildu denean, zenbat?

Kontuak ateratzen hasi dira batzuek eta besteak. Azkenean, balantzera argia egin dute: "laurehundik pasatako urterik bada. 430 inguru, hor nonbait. Barnetegia egindako lehenengo urtea, hura izango zen jendetsuena".



1979. Lehenengo herri afaria



2006ko herri afaria

Eguraldia portatu al da hogeita hamar urteotan?

Beti-beti ez. Denetik izan omen da tartean. Hala dio Koozmendik: "sekulako gau-giroa izan dutenak, gutxi samar. Izan dira, ordea, txapela kentzeko modukoak ere. Euripean pasatako gauak, bestalde, askotxo: nahi baino gehiago. Plazan hasi eta frontoian bukatu beharrekorik ere izan da tartean".

Zenbat aldiz egin da afaria plazan, eta zenbat aldiz lehorpean?

Erantzun zehatzik ez dute ematen jakin. Ez da harritzekoa: zaila da halakorik esaten. Azkenean, erdibidetik jo du Koozmendik: fifty-fifty.

Zein da menu nagusia, gehien ikusten dena?

Horretan ere ez dago segurantz osorik. Inori ez zaio galdetzen zer ekarri duen; gero ezin beraz kontuak atera. Entsalada, oilaskoa eta gazta dira halere, askoren ustean, afalorduan gehien ikusten direnak.

Sagardorik inoiz ekarri al du udalak?

Erantzun zehatza jaso dut oraingoan ere: "Ez. Urte batez sagardo-upelatxoa ekarri zuen Otatzako Joxeantoniok, eta denentzat doan izan zen urte hartan. Udalak ez du, ordea, inoiz sagardorik ekarri izan. Nahi duenak beretzat ekartzen du sagardoa. Txanpaina berdin. Denontzako doan, inoiz ez. Beste

1993ko herri afaria



horrenbeste gertatzen da mahaiondokoekin: kafea nork berea ekartzen du; pattarra ere bai. Ardo beltza eta gorria eskaintzen du udalak pitxarretik, afaltzera etortzen direnentzat. Ez da gutxi".

Pitxarrak noiz erosi ziren, eta non?

Bada horretaz ere akordatzen denik: "pitxar batzuk Zegamako Gregorio Aramendi zenarenak dira. Geroztikakoak Arabako Ollerietatik ekarri genituen, 2000. urte-inguruan. Pitxar horien egilea Blanka Gomez de Segura da, Zeraingo dendan saltzen den zeramika egiten duen emakumea".

Hasieratik izan al dira bertsolariak herri-afarian?

Ziplo dator erantzuna, bi aldiz pentsatu beharrik gabe: "bai, beti gurekin izan ditugu bertsolariak". Puntualizazioak gero datoz: "Orain dela hiru bat urtera arte, txapela irabazi eta hurrengo urtetik hasita hor nonbait, urtero etorri izan da Sebastian Lizaso, Lazkanorekin batera. Urteren batean Gorrotxategi etorri zen afaritara, Lazkano gaixo zela-eta. Lazkao Txiki, Agirre, Egaña, Mañukorta eta Peñagarikano ere izanak ditugu Zerainen, besteak

beste. Azken hiru urtean bertsolari gazteak etortzen hasi dira, betikoez gainera. Lehen, eguerdi eta gau etortzen ziren bertsolariak. Orain gauez bakarrik etortzen dira".

Afaria beti ordu berean?

Gutxi gorabeherako erantzuna jaso da oraingoan, zaila baita urteroko orduaz akordatzea. "Gutxi gorabehera bai. Eguraldiak uzten badu behintzat, afaria beti ordu berean hasten da: gaueko zortzi t'erdietan. Inoiz gertatu izan da, ordea, bakoitzak bere silla hartu eta frontoira jaitsi beharra. Halakoetan atzeratu egiten dira kontuak, zertxobait".

Nork antolatzen du herri-afaria?

Batzuen ustez festetako komisioak, antolamendubatxordeak. Gehienek, ordea, izen konkretua aipatzen dute inor aipatzen hasita: Mariflor.

Inguruko herriek ere egiten al dute halakorik?

Bai. Mutiloak bai, Sanpedrotan: Zeraingoa baino berriagoa da hori. Gabiriak guk baino lehenagotik egiten du berea. Segurak tradizio handia eta ugaria du: Sanisidrotan eta Korpusetan egiten zen halakorik,

aspaldidanik. Zegaman Bazkoa bigarrenekoa da ezaguna, peregrinaziotik bueltan.

Ardorik onena noiz?

Ardoa beti izan da ona, tertuliako lagun ustez: horretan ez omen dago alde handirik, urte batetik bestera. Gusto kontua, gehienik ere.

Ardoa nondik ekarri izan da?

Erantzun detailatua jaso da oraingoan ere: "Kontu bat da ardo beltza, eta bestea gorria. Ardo beltza, Lazkaokoaren ondoan, Samaniegoko Marino Bello-rena izan genuen hasieran. Gero, ardoaren prezioa izugarri igo zela-eta, Nabaridas-ko Vinegra bodegatik hasi ginen. Azken urteotan, berriz, Baños de Ebro-ko Artuke-tik ekartzen da. Ardo gorria, aldiz, nafarra izaten da: San Martin de Unx-tik ekarri izan da beti.

Bai azkar joan zaigula ordua, mahaitxoaren jiran. Segituko genuke, baina ezin da. Emaztea dut mobiletik deika, afaria hozten ari dela eta bihar goiz jaiki behar dela esanez. Arrazoi osoa du. Hurrengo urtean gehiago, gusto baduzue.

Mikel Zalbide

Ferminen bizi berria

2160KO IRAILAREN 15A

Espainia. Bi haur beraien aitonarekin bizi dira. Nahiko pobreak dira baina alaitasuna ez da inoiz falta euren etxean. Bi haurren izenak Ekaitz eta Manu dira. Gauero aitonak ipuin bat kontatzen die eta gaur gauean ere ez da ipuinik faltako. Eta horrela aitona ipuina kontatzen hasi zaie.

-2092. urteko istorio bat da hau -hasi zaie aitona.

"Garai haietan XV. Gerra Zibila hasi zen Espainian..."

-Zer da Gerra Zibila?- galdetu zuen Ekaitzek.

-Ba hitz gutxitan esanda lurralde batean herritarren arteko gudua.-aitonak.

"...hau dela eta -jarraitu zuen aitonak- jende askok atzerrira joan behar izan zuen, adibidez, Kairora, Erromara, Parisa edo Berlina. Haietako pertsona bat Fermin gaztea zen..."

-Zu bezala, aitona -Manuk.

"...Egun ilun haietan Berlina joan behar izan zuen hamazazpi urte zituelarik. Fermin pobrea, buruargia eta azkar ikasten zuen pertsona horietako bat zen.

Berlinera iritsi zenean ez zekien zer egin. Azkenean zuen diru apurrarekin ostatu batera sartu zen gaua igarotzera, hurrengo eguna hobe izango zela pentsatuz. Azkenean nekearen eraginez loak hartu zuen.

Hurrengo eguna iritsi zen eta Fermin pozik zegoen. Egun horretan lana bilatu beharko zuen, baina lehenengo gosaldia eta hiria ezagutu zituen: Edelstein Museum (harri bitxiaren museoa), Plaza Nagusia, Udaletxea, etab.

Bazkaldu ondoren berarentzat aproposa zen lanen bat bilatzea pentsatu zuen, adibidez ostalaritza. Horretarako..."

-ZZZ...-aitonak.

Zerain

Lurrindegi, Kosmetika eta Erregaluak

San Inazio kalea, 14 - Tel. 943 88 93 90 - 20200 BEASAIN

Garagarza plaza, 1 - Tel. 943 80 53 27 - 20240 ORDIZIA

San Frantzisko pasealekua, 8 Tel. 943 65 02 39 - 20400 - TOLOSA

-Esnatu aitona ipuina kontatzen jarraitu behar duzu -Ekaitzek.

"... ostatuetan galdetuko dut.

Egun osoa pasa zuen ostatutik ostatura. Gaua zen eta ostatu bakarra falta zitzaion: aurreko gauean lo egin zuena, alegia. Sartu zen eta galdetu zion tabernariari:

-Kaixo Felipe naiz eta lan bila nabil. Pentsatu dut ostatu hau aproposa dela.

-Zerbitzariren bat ez zaigu gaizki etorriko, ongi da. Ordainean 3d gela eta diru pixka bat emango dizut, Ados?- tabernariak.

-Bai- Felipek.

Horrela lana lortu zuen eta tabernariari izena galdetu zion: Peio. Orduan Felipek pentsatu zuen berekiko:"Hau ere Espainiatik etorritakoa izango ote da." Gelara joan eta loak hartu zuen.

Lanean hasi orduko Peioren oso lagun egin zen. Egun batean honela esan zion ostatukoak:

-Ni orain dela hogeit hamar urte etorri nintzen Espainiatik Berlina. Garai haietan oso zaila zen lana aurkitzea eta horregatik eman nizun lana. Nuen diruarekin nire negoziotxo muntatu nuen. Horrela jakin zuen Felipek Peiori buruzko guztia. Asteak eta asteak pasa ziren ezer gertatu gabe.

2092ko irailaren 15ean oso eguraldi onarekin jaiki zen Felipe. Bere barnean bazekien zer edo zer berezia gertatuko zitzaiola egun hartan eta gosaldia eta gero esan zion bere lagunari:

-Gaur jai hartuko dut-

-Ongi da -Peiok.

Ondoren taxi bat hartu eta Berlin inguruko aisialdi gune batera joan zen paseatzera. Bertan paseatu ondoren "piknik"

moduan manta bat lurrean

ezarri eta janaria atera zuen.

Momentu horretan neska gazte

bat korrika pasa zen eta

liburuak erori zitzaizkion

Feliperen gainera.

-Barkatu, nahi gabe izan da-
neskak.

- Lasai ez da ezer izan. Kaixo ni
Felipe nauzu eta zu?-lotsatuta.

-A ni Emma naiz- bera ere
lotsatuta.

-Nahi al duzu..."

-Epa, epa ,epa ez al zuen gure



Berlin

amonak Emma izena- Manuk

-Bai-aitonak.

-Orduan hau zure istorioa izango da eta egun hori zu eta amona ezagutu zinetena da, ezta?-
Ekaitzek.

- Bai, baina orain goazen istorioa bukatzera- aitonak.

"...nirekin bazkaldu- esan zuen Felipek.

-Bai noski- Emmak.

Handik gutxira ezkondu egin ziren. Biak batera etxe bat erosi eta familia izan zuten..."

-Hau da zuen aita-aitonak

"... Oso zoriontsuak ziren eta gero Espainiara itzuli ziren. Beraien umeak bi ume izan zituen."

-Baitez asmatu-Manuk- gu.

-Bai jauna-aitonak.

-Zein polita- ekaitzek.

Orain lo egin behar duzue-

-Ondo da aaaitona...ZZZ- biek batera.

-Schlafen whol-aitonak alemanez- edo euskaraz ondo lo egin.

ETA HALA BAZAN ETA EZ BAZAN SAR DADILA ZERAINGO PLAZAN

Mikel Etxeberria



« izal »

IMAZ ETA CONTRERAS

PINTURA ETA PAPERGINTZA

Tel: 943 18 70 49 - 943 18 70 45

20213 IDIAZABAL

SAGARDOA

Sagarraren zukua hartzituz egiten den edari bizia da.

Antropologoek diotenez, euskaldunek baserria baino lehenago ezagutu zituzten sagarra eta sagardogintza. Baserrietan sagardoa etxeko sagarrarekin eta etxean egiten zen. Askotan auzolanean egiten zen, eta ohitura horrek duela gutxi arte iraun du.

Geroago sortu ziren sagardotegiak; haiek izan ziren baserritarren lehenago tabernak. Pitxarretan ateratzen zen sagardoa eta haiekin batera, sardina zaharrak, arrautza egosiak, eta gaztainak jaten zituzten. Upelak iturri bat zuen eta mahai baten atzean zegoen pertsona batek sagardoa edalontzietan edo pitxarretan ateratzen zuen. Geroago sortu zen upelera edatera joateko ohitura eta txotxean edatekoa. Ohitura hau indarrean dago.

Gipuzkoan Europako dolare handienak gorde dira. XIV. mendean sagarrondoak eta sagardoaren saileko ondasunak ziren, eta zigor gogorak aipatzen ziren upelak puskatzen zituztenentzat edo sagardoari ura botatzen ziotenentzat. XVI. mendean geroztik sagarrondoak gutxitu egin ziren Bizkaian, Araban eta Nafarroan, baina Gipuzkoan indartsu iraun zuten.



Sagardoaren erabilera oso zaharra da. Euskal Herria ez ezik Kantabrian eta Asturiasen ere sagardoa ekoizten duten zentro handienak daude, sagardoa kantitate handietan kontsumitzen den tokietan.

Baserritarrek dolarea sagar kargaz betetzen zuten, sagarra jo eta lehertu egiten zuten, eskuz orain dela gutxi arte, makinaz gaur egun, dolareari ura bota eta sagar-patsa hartzitzen uzten zuten, azkenean upeletan sartzen zuten.



Sagardoaren gaixotasunek sagardoa edukitzeko tokiak gaizki zainduta daudelako, kontserbazioagatik eta manipulazioagatik izan ohi dira.

Mikel Oria



MYJIKÀ JATETXEA

LIERNIA - Tfnoa: 943 80 16 99 - 20214 MUTILOA

Zeraingo xagu txikiak

BERTSOA

Xagu txikiak gara
zeraingo guztiak,
herri txikiak dira
politak ta alaiak,
auzoak eta eskolak
pozik bizi dira,
guretzat oso polita da
gure herria (bis)


ABESTIA

Xagu txikiak badoaz
eskolara-eskolara
ikastera-ikastera
eta gero jolastera-jolastera.
herri txikiak bizirik
ederra bai da mundua
gure herrian pozik
bizi bai gara.

Maialen Alustiza

Tximeleta txikia

Tximeleta txikia
loretik etorria
guretzat politena
eta zer ikusiko?
liburu polit -politak !



Maialen Alustiza

Elurra eta mantangorria

Bazen behin marigorringo bat. Bere aita eta ama galduta zeuzkan, beldurra zeukan elurra egiten bazuen hil egingo zelako.

Marigorringok etxolatxo bat egitea erabaki zuen, eta hostoekin egitea pentsatu zuen baina esan zuen:

- baina elurra hostoak baino indartsuagoa da, zer egingo dut orduan? eta laguntza beharko dut eta lagunak egitera noa neri laguntzeko.

Eta tarraka- tarraka lagunak egitera joan zen, kale handia zen eta ezin zuen aurkitu. Orduan eskailera bat hartu zuen eta teilatura igo zen. Dena ikusten zuen teilatutik marigorringok baina estropuz egin eta estoldara erori zen eta urak eraman zuen .
Etxe arraro batera iritsi zen eta esan zion bere buruari

- O! nire aita eta ama jauregi honetanxe daude preso, salbatu beharra dauzkat eta nire atzetik soldaduak datoz eta orain korrika egin beharko dut.

Eta bere aita eta ama ikusi zituen kartzelan eta bere aita eta ama salbatu zituen eta poz pozik bizi izan ziren.

Josu Lazkanoiturburu

Elurra

Bazen behin pirata bat txintxoia zena.

Egun batean, pirata, bere barkuan zebilen eta ezin zen atera barkutik izotza zegoelako. Esan zuen:

- Nire eskietako patinak hartuko ditut eta nire eskularruak eta nire txakurra hartuko dut. patinatuz joango naiz eta nire lagunei esango diet.

Eta galdetu egin zien

- Nahi duzue jolastu nire trineoan?


- Baina zure trineoan ez gara kabitzen- erantzun zien bere lagunek.

Eta iritsi zenean denak elurretan jolastu ziren . Aspertu zirenean pirataren etxera joan ziren lotara eta hurrengo egunean trineoan poz-pozik jolastu ziren.

Aroa Saez de Egilaz

Pentsatzeko ariketak

1. Igerileku karratu bat eta ertz bakoitzean zuhaitz bat. Txikia gelditu da eta handitu egin nahi dute. Igerilekua karratua izan behar da eta zuhaitzak igerilekutik kanpo egon behar dute. Horrela dago:



2. Zer agertzen da segunduro, minuturo, egunero eta urtero. baina inoiz ere ez astero?

3. Zenbat aldiz pasatzen da orratz txikia orratz handiaren gainetik 24 ordutan?

4. Esku batean 5 behatz baldin badaude, eta 2 altxatuta, zenbat behatz daude eskuan?

5. Zenbat denbora behar du, gutxi-gora behera, arrautza gogortuak egosteko?

6. Zer behar du apaizak elizan sartzeko?

7. Urteko hilabete batzuek 31 egun dituzte, beste batzuek 30. Zenbait hilabetek dituzte 28 egun?



TXIRBIL Koop.E.

EGUR PELLETA, BEROKUNTZARAKO BIOMASA SISTEMA AUTOMATIKOAK


ZERAIN
Tel. 943 800 208
txirbil@txirbil.com

EGUREZKO LEIHOAK ETA ISKILARAK

8. Nola irteten da elefantea uretatik, zeri heldu ez badu?
9. Zein da esaldi zuzena: "arrainek odol beroa dute" ala "arrainak odol beroa dute"?
10. Antartida hegora lehenengo iritsi zirenak, edozein animalia erraz ehizatzeke hainbat baliabide zituzten. Maiz gosez hil beharrean egonda ere, ez zuten inoiz hartz zuriaren okelarik jan. Zergatik?
11. Edmond Hillaryk Everest mendia eskalatzea lortu baino lehen, zein zen munduko mendirik altuena?
12. Zer du errege batek gorputzaren erdian?
13. Zer egiten du asto batek eguzkitan?
14. Gure auzokoaren oilarrak ia egunero gure etxeko hesia zeharkatzen du eta lorategian aurkitzen duen guztia jaten du. Egunen batean gure lorategian arrautza jarriko balu, arrautza niretzat edo auzokoarentzat izango litzateke?

ERANTZUNAK

1.



2. "U" letra ez da inoiz ere agertzen "astero" hitzean eta besteetan bai.

3. Inoiz ere ez da pasatzen orratz txikia handiaren gainetik.

4. 5 behatz daude eskuan, nahiz eta 2 altxatuta eduki.

5. Arrautza egosia ez da berriro egostek.

6. Atea irekita edukitzea.

7. Hilabete guztiek dituzte 28 egun.

8. Blai eginda.

9. Arrainek odol hotza dute.

10. Ipar Hegoan ez dagoelako hartz zuririk.

11. Betidanik izan da Everest munduko mendirik handiena, nahiz eta geroago eskalatu.

12. Zilborra.

13. Itzala.

14. Oilarrak ez du arrautzarik egiten.

Andoni Alustiza



Zerain (Gipuzkoa) - Tfnoa. 943 800 161
www.lumagorri.es


LumaGorri

Dastatu desberdintasuna



JOXE TELLERIA, S.L.
Aseguruak . Korreduria

Plaza Erauskin, 2
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 882 643 / 943 887 155
Fax: 943 887 155